

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**10142** 33/2015 Legea, irailaren 21ekoa, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzen duena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiak.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta Nik berretsi egiten dudala.

HITZAURREA

I

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen bitartez, Espainiako natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta leheneratzeko oinarritzko araubide juridikoa ezarri zen, betiere pertsonen ongizaterako, osasunerako eta garapenerako ingurumen egokia bermatzeko eskubideen eta kontserbatzeko betebeharraren barruan. Lege horretan, azken hamarkadetan eman diren nazioarteko arau eta gomendioak bildu ziren, hala nola Europako Kontseiluak edo Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenak emandakoak, bai eta Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentaraua ere, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzearen ingurukoa (Habitaten Zuzentaraua).

2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea aplikatu den urteetan bildutako esperientzian oinarrituta, legea aplikatzean zenbait alderdi hobetu egin behar direla geratu da agerian; beraz, asmo horrekin aldatzen da legea, batik bat gune babestuen kudeaketari dagokionez.

II

Bestalde, lege honen helburua da nazioarteko zuzenbidea behar bezala aplikatuko dela eta Europar Batasuneko araudia geure ordenamendu juridikoan txertatuko dela bermatzea. Ildo beretik, lege honetan egiten diren aldaketekin, alde batetik, egokitu egin nahi da honako arau hauetan xedatzen dena: 1982ko abenduaren 10ean Montego Bay-n sinatutako Itsas Eskubideari buruzko Nazio Batuen Konbentzioa —Espainiak 1996ko abenduaren 20an berretsi zuen—, Baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eta haiek erabiltzeak dakartzan onuretan parte-hartze bidezkoa eta ekitatezkoa izatearen gaineko Nagoyako Protokoloa —2014ko ekainaren 3an berretsi zuen Espainiak—, eta Batasunean erabiltzaileek Protokolo hori betetzeko neurrien inguruko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 511/2014 zenbakidun EBko Erregelamendua, Europar Batasuna Protokolo horren tratatugile ere baden aldetik; eta, bestetik, lortu nahi da hobeto txertatzea gure ordenamendu juridikoan Habitaten Zuzentaraua eta Hegaztien Zuzentaraua —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentaraua, Basahegaztiak Kontserbatzearen ingurukoa—. Horretarako dira 3. artikuluan txertatzen diren aldaketak, definizio berriak ere sartzen baitira, 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legean jada bazirenez gain.

Halaber, Biodibertsitatearen gaineko 2020ra arteko Europar Batasunaren Estrategiaren helburu nagusiak geure ordenamendu juridikora ekartzea ere lortu nahi da. Horretarako, aldatu egiten da legearen printzipioei buruzko 2. artikulua, eta lehen aldiz txertatzen dira biodibertsitatearen galera garbia saihesteko printzipioa eta klima-aldaketaren ondoriozko

arazoak prebenitzekoa, 5. artikulua araberako administrazio publikoen eginbeharretako bat den aldetik.

## III

Bestalde, Estatuko Administrazio Orokorrari itsas ingurunea kudeatzearekin lotutako zer eskumen dagozkion zehazteko beharrezkoak diren xedapenak biltzen dira lege osoan zehar. Ildo beretik, lege orokorra zera da: Espainiako Konstituzioaren 149.1.23 artikulua onorio diren eta 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legean zehaztu ziren eginkizunak autonomia-erkidegoek bete behar dituztela lehorrean, eta Estatuko Administrazio Orokorrak itsasoan. Lege orokor hori eskumen autonomikoen lurraldetasun-kontzeptuaren onorio den aldetik, Konstituzio Auzitegiaren dotrinaren oinarri izan da, baina bada salbuespen bat ingurumenaren aldetik babestutako guneen arloan. Konstituzio Auzitegiaren 2013ko apirilaren 11ko 87/2013 Epaia araberako, «jurisdikziopeko uretako naturagune babestuen gaineko eskumen autonomikoa baliatzea salbuespena da, eta kudeaketa bateratua ezinbestekoa den kasuetan baino ez dago justifikatuta, babestu beharreko naturagunearen berezko ezaugarri eta zirkunstantziak aintzat hartuta» (6. OJ). Konstituzio Auzitegiak jurisprudenzian behin eta berriz ezarritako doktrinaren oinarrituta —esaterako, 2013ko urtarrilaren 17ko 8/2013 Epaia—, babestu behar den lekuak ebidentzia zientifiko onenean oinarrituta dauzkan ezaugarri eta zirkunstantzia objektiboak erreparatu behar zaie, administrazio baten edo bestearen eskumena zehazteko. Estatuko Administrazio Orokorrak itsas ingurunearen kudeaketari dagozkion zer eskumen izango dituen legean zehazte aldera, aldatu egiten dira legearen zenbait agindu, hala nola, 6. artikulua —Estatuko Administrazio Orokorrak itsasoko biodibertsitateari buruz dituen eskumenei buruzkoa—, eta 25-29, 33., 42., 43., 44. eta 46. artikulua —habitata katalogatzeari eta naturaguneak babesteari buruzkoak—; eta gehitu egiten da zortzigarren xedapen gehigarria —Estatuko Administrazio Orokorrak itsasoko gune, habitat eta espezieen gaineko eskumenak baliatzeari buruzkoa—.

## IV

Lege honen beste helburuetako bat natura-ondarea eta biodibertsitatea ezagutzeko eta planifikatzeko tresnak sinplifikatzea eta arintzea da; tresna horiek 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen I. tituluaren arautu ziren.

Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioari dagokionez, aldatu egiten da 10. artikulua, Inbentario hori egiteko adierazleak ministro-agindu baten bidez onartuko direla zehazteko, betiere Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluak eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak alde aurretik txostena eginda. Eta 11. artikulua ere aldatu egiten da, natura-ondarearen eta biodibertsitatearen egoerari buruzko urteko txostenen edukia sinplifikatzeko; hartara, txostenak sintetikoagoak izango dira, eta sei urtean behin ebaluazio sakona egingo da. Hori horrela izanik, txosten horiek bat egingo dute, aldizkakotasunari dagokionez, Europako Batzordera sei urtean behin helarazi behar den natura-ondarearen eta biodibertsitatearen egoerari buruzko txostenarekin.

Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoari dagokionez, aldatu egiten da 13. artikulua, Plana onartzen duen errege-dekretuan bertan zehatz dadin haren indarraldia. Hartara, egoki iritziz gero, Estatuko Planaren iraupena egokitu egin ahal izango da Europar Batasunak eta Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenak onartutako plan estrategikoen araberako.

## V

Beste alde batetik, Azpiegitura berdearen eta konektibitate eta leheneratze ekologikoen Estatuko strategiari buruzko III. kapitulu berria txertatzen da I. tituluaren. Kapitulu berri horren bitartez, Europako Batzordeak Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazitako

COM(2013) 249 behin betiko Komunikazioa bete nahi da: «Azpiegitura berdea: Europako natura-kapitala hobetzea», 2013ko maiatzaren 6koa; halaber, Biodibertsitatearen gaineko 2020ra arteko Europar Batasunaren Estrategiaren zenbait helburu txertatzea ere lortu nahi da. Ezartzen da «Azpiegitura berdearen eta konektibitate eta leheneratze ekologikoen Estatuko estrategia» bat onartuko dela; Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek landuko dute, batera, eta jarraibide hauek finkatzea izango da estrategia horren helburua: batetik, Espainiako itsaso eta lehorreko lurraldearen azpiegitura berdea osatzen duten lurraldeko elementuak identifikatu eta kontserbatzeko jarraibideak, eta, bestetik, administrazio publikoek egiten duten lurralde-plangintza sektorialaren bitartez honako hauek ahalbidetu eta ziurtatzeko jarraibideak: ekosistemen konektibitate ekologikoa eta funtzionaltasuna, klima-aldaketa arintzea eta haren efektuetara egokitzea, konektibitateko estrategikoak diren inguruak desfragmentatzea eta narriatutako ekosistemak leheneratzea.

## VI

Beste gai bati helduta, lege honen funtsezko xedea da gune babestuen eta, bereziki, Natura 2000 Sarean sartzen diren guneen kudeaketa hobetzea, naturagune horiek hobeto babestuko direla eta deklarazioaren xede izan diren helburuetara egokitzen direla bermatzeko.

Horretarako, eta natura-ondarearen eta biodibertsitatearen eginkizun sozial eta publikoa bermatzearren, 4. artikuluan berriaz ezartzen da Estatuaren interes orokorreko obra deklaratu daitezkeela honako hauek: gune babestuak kontserbatzeko eta leheneratzeko behar direnak, espezie mehatxatuak kontserbatzeko behar direnak edo desagertzeko arriskuan dauden habitatak kontserbatzeko behar direnak. Horrela, bada, parekatu egin dira obren tratamenduak: Natura 2000 Sareko guneak eta egoera kritikoa dauden espezieak kontserbatzeko eta leheneratzeko obren tratamendua Estatuko Administrazio Orokorrak beste esparru batzuetan egiten dituen obren tratamenduaren parean jarri da, hala nola itsaso eta lehorrearen arteko jabari publikoaren edo ingeniari hidraulikoaren eremuetakoaren parean.

Bestalde, administrazio publikoek naturagune babestuak kontserbatzearekin bateragarri diren jardura ekonomikoak bultzatzen ditzaten sustatzeko zenbait neurri ere txertatzen dira, tokiko biztanleen ongizaterako eta enplegua sortzeko lagungarri. Hori horrela izanik, natura-monumentuei dagokienez, 33. artikulua aldatu eta 34. artikulua bihurtzen da; horri esker, ustiatu egin daitezke baliabideak, baldin eta ustiatzea erabat koherente bada gune jakin bat Natura Monumentu deklarazioa justifikatu zuten balioekin.

Bereziki Natura 2000 Sarearen barruan sartutako naturaguneak kontserbatzeko neurriak dagokienez, 42. artikulua berriaz beste zenbaki bat eranstean zaio; zenbaki horretan, nabarmentzen da Natura 2000 Sareko guneak kontserbatzearekin bateragarri diren jardura ekonomikoak bultzatuko dituztela administrazio publikoek, eta lehentasuna ematen zaie, bereziki, naturagune jakin bat Natura Monumentu deklarazioa justifikatu zuten balioekiko erabat koherenteak diren jardurei.

Era berean, aldatu egiten da Natura 2000 Sarearen kontserbazio-neurriak buruzko 45. artikulua zena, eta zehaztu egiten dira bai neurri horien eraginpeko esparru geografikoa eta espezieak, eta baita gune horietan edo galzoriko espezieengan ondorio negatiboak eragin ditzaketen plan, programa edo proiektuak egiteari buruzko zenbait alderdi ere.

Bestalde, aldatu egiten da Natura 2000 Sareko gune babestuen zaintzari eta jarraipenari buruzko 47. artikulua berria ere, eta ezartzen da jarraibide komun batzuk onartuko direla Batasunaren intereseko espezie eta habitaten zaintza eta jarraipena egiteko lurralde nazional osoan aplikatu behar den metodologian.

## VII

Legeak txertatzen duen berrikuntza garrantzitsuenetako bat II. tituluaren VI. kapitulua da; Jabetza Erregistroan ingurumen-informazioa txertatzeari buruzkoa da kapitulu hori. Neurri horren bitartez, segurtasun juridiko handiagoa eman nahi zaie gune babestuen jabetza-araubidearekin lotutako alderdiei; hortaz, gune horiei buruzko informazio

perimetralak Erregistroan jasota egon beharko du. Halaber, Higiezinaren Katastroak ingurumen-informazio hori eskuragarri izango duela ere ezartzen da, betiere araudi erregulatzaileraren arabera.

Horrela, bada, ezartzen da lineako mapa-zerbitzua eguneratuta edukiko duela Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak; zerbitzu horren bitartez, esparru babestuak identifikatu eta mugatzeko aukera egongo da, eta datuak inportatu ere egin ahal izango dira, erregistro-sistema informatiko bakarraren aplikazio grafikoan erregistro-finkekin alderatzeko.

Hortaz, arauen eraginkortasuna eta aplikazioa areagotuko dituen publizitate-mekanismo bat prestatzea lortu nahi da, higiezinaren trafikoaren segurtasun juridikoa indartuta. Erregistroaren oinarri grafikoei lotutako lurralde-informazioa da, eta, beraz, informazio-balioa baino ez du.

## VIII

Lege honetan, administrazio publikoen erantzukizuna sendotzera bideratutako zenbait neurri ezartzen dira, III. tituluan arautzen den biodibertsitatearen kontserbazioaren arloan. Ildo beretik, 52. artikulua aldatu eta 54. artikulua berria bihurtzen da; artikulua horren arabera, bermatu egin behar da espezie aloktono bat inportatzen denean behar besteko bermeekin inportatuko dela eta aldeztu aurretik baimena eman duela ingurumen-administrazio eskudunak, arriskuak aztertu ostean. Bestalde, berariaz aipatzen da administrazio publikoak ez direla erantzule izango basafaunako espezieek eragindako kalteen kasuan, betiere araudi sektorial espezifikoa xedatutako kasua ez bada.

Horretaz gain, desagertutako basaespezieak berriro sartzeari buruzko 55. artikulua berria txertatzen da, berriro sartzeko horiek berme guztiekin egin daitezela ezartzeko.

56. artikulua aldatu eta 59. artikulua bihurtzen da; artikulua horretan, ezartzen da Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak itsasoko espezie mehatxatuak berreskuratzeko eta kontserbatzeko planak egin eta onartuko dituela, migrazio handiak egiten ez dituzten espezie mehatxatuen kasuan izan ezik, baldin eta espezie horien habitatak dauden guneetan itsasoko ekosistemak jarraitutasun ekologikoa badauka babestu behar den lehorreko naturagunearekin, dagoen ebidentzia zientifiko onenaren bermearekin.

57. artikulua ere aldatu egiten da, eta 60. artikulua bihurtzen da; artikulua hori espezie mehatxatuak kontserbatzeko eta biodibertsitatearen aurkako mehatxuei aurre egiteko estrategiei buruzkoa da. Egoera kritikoan dauden espezieen kasuan, ezartzen da interes orokorreko obra deklaratu direla eta premiaz tramitatutako direla espezie horiek berreskuratzera bideratutako obra eta proiektuak. Bestalde, artikulua horretan bertan ezartzen da Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak itsasoko espezie mehatxatuak kontserbatzeko eta itsasoko biodibertsitatearen aurkako mehatxuei aurre egiteko strategiak onartuko dituela.

58. artikuluari dagokionez, 61. artikulua bihurtzen da, eta II. tituluaren I. kapituluaren ezartzen diren debekuei beste salbuespen bat gehitzen zaie lehen mailako interes publikoko ezinbesteko arrazoiei buruz, Habitaten Zuzentarauari dagokion artikuluan xedatutakoa behar bezala aplikatzeko; horrekin batera, salbuespenen idazkeraren zenbait alderdi zehaztu dira, Zuzentaru hori eta Hegaztien Zuzentaruaren gure ordenamendu juridikoan hobeto txerta daitezela. Bestalde, bi zenbaki gehiago gehitzen zaizkio, dauden teknika onenak erabiliko direla bermatzeko espezieak harrapatzeko eta markatzeko metodoei dagokionez, eta, bereziki, eraztunketa zientifikoari dagokionez.

Azkenik, 60. artikulua ere aldatu eta 63. artikulua bihurtzen da; zer helburu lortu nahi den adierazten da bertan, basaespezieen material biologikoa eta genetikoa animalien edo landareen germoplasma-bankuetan kontserbatzeko dagokionez, eta esku-hartzearen lehentasunak zeintzuk izango diren zehazten da: babes bereziko araubideari atxikitako espezieak eta, bereziki, espezie endemikoak edo katalogatutakoak. Artikulua horretan ezartzen denez, autonomia-erkidegoek beren lurraldeetako basaespezieen material biologikoaren eta genetikoen bankuen erregistroa izango dute, eta eguneratuta eduki beharko dute kontserbatzen dituzten bildumei buruzko informazioa. Dena dela, argitu nahi

da erregistro hori ez dela Nagoyako Protokoloaren inguruko 511/2014 zenbakidun EBko Erregelamenduaren 5. artikuluan aipatzen den bildumen erregistroa.

## IX

Espezie exotiko inbaditzaileen prebentzio eta kontrolari dagokionez, 61. artikulua zena orain 64. artikulua bihurtzen da, eta zehaztu egiten da zein zirkunstantziatan gera daitezkeen eraginik gabe espezie bat Espezie Exotiko Inbaditzaileen Katalogoan sartzearen ondoriozko debekuak; halaber, ezartzen da itsasoko espezie exotiko inbaditzaileei dagozkien estrategiak onartuko dituela Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak. Gai horri dagokionez, ez da ahaztu behar 2015eko urtarrilaren 1ean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko urriaren 22ko 1143/2014 zenbakidun EBko Erregelamendua jarri zela indarrean; erregelamendu hori espezie exotiko inbaditzaileak sartu eta hedatzea prebenitu eta kudeatzearen gainekoa da. Legearen artikuluetan eta, bereziki, 33., 43. eta 54. artikuluetan, zenbait debeku aipatzen dira, 1143/2014 zenbakidun EBko Erregelamenduaren 7.1 artikuluan xedatutakoa betetze aldera.

Espainiako Biosfera Erreserben Sareari dagokionez, egin beharreko aldaketak egiten dira 66. eta 67. artikuluetan; 69. eta 70. artikulua bihurtzen dira, hurrenez hurren, eta egokitu egiten dira UNESCOren «Gizakia eta Biosfera» Programaren (MAB programa) eginkizunak arautzen dituen araudi berriagoaren arabera; eta, bide batez, bete egiten da Konstituzio Auzitegiaren 2013ko ekainaren 6 ko 138/2013 Epaian xedatutakoa ere.

Bestalde, zenbait aldaketa ere egiten dira araudi nazionala Nagoyako Protokoloaren eta 511/2014 zenbakidun EBko Erregelamenduaren arabera egokitzeko. Nagoyako Protokoloa baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eta haiek erabiltzeak dakartzan onuretan parte-hartze bidezkoa eta ekitatezkoa izatearen gainekoa da, 2014ko urriaren 12an jarri zen indarrean, eta Espainia ere alderdi kontratugile da 2014ko ekainaren 3an berretsi zuenetik; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 511/2014 zenbakidun EBko Erregelamendua, berriz, Batasunean erabiltzaileek Protokolo hori betetzeko neurrien ingurukoa da, eta Espainiak hori ere berretsi zuen, 2014ko apirilaren 14ko Kontseiluaren Erabakiaren bidez. Horretarako, aldatu egiten dira 68. eta 70. artikulua; lehena 71. artikulua bihurtzen da, eta basataxonetatik datozen baliabide genetikoaren eskuragarritasuna eta erabilera arautzen ditu; bigarrena, aldiz, 74. artikulua bihurtzen da, eta natura-ondarearen eta biodibertsitatearen kontserbaziorako jakintza tradizionala sustatzeari buruzkoa da. Era berean, 72. artikulua berria txertatzen da: baliabide genetikoaren erabilera kontrolatzeari buruzkoa.

Kontuan izan behar da 55., 56., 60. eta 72. artikulua berrietan aipatzen diren baimenak legearen beraren helburuetan oinarritzen direla —besteak beste, natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzea—; beraz, ez dira urratzen ez merkatu-batasunaren printzipioa, ez eta premia eta proportzionaltasunarenak ere —Merkatu Batasuna Bermatzeari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 20/2013 Legearen 17. artikuluan xedatutakoari jarraikiz—, bete egiten baita ingurumena babesteko printzipioa. Are gehiago, lurralde nazional guztian irizpide eta jarraibide komunak betetzera bideratuta daude, hain zuzen, baimen horiek, merkatu-batasunaren bermea erabat bermatuta gera dadin; halaber, lehiari ere mesede egiten diote, Estatuko lurralde osoko irizpideak bateratu egiten baitira ingurumena hobeto babestearren. Ildo beretik, harrapariak harrapatzeko metodoen homologazioak bakarrak izango dira Estatu osoan.

Natura Ondarerako eta Biodibertsitaterako Funtzari dagokionez, 74. artikulua 78. artikulua bihurtzen da, eta ezartzen da Funtzaren kontura finantzatzen diren ekintzak gauzatu ahal izango dituela Estatuko Administrazio Orokorrek; horrekin batera, 5. zenbakia ezabatu egiten da, Estatuko Administrazio Orokorren egitura organiko berriarekin koherente izateagatik, zeren nekazaritzaren eta ingurumenaren arloetako eskumenak departamentu berari baitagozkio orain.

Bestalde, zehapen-araubidea arautzen duten VI. tituluko xedapenetan ere, egin beharreko egokitzapenak egiten dira baliabide genetikoaren erabilerarekin lotutako arau-hausteak sartzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 511/2014 zenbakidun EBko Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz.

Bukatzeko, honako lege hauek ere aldatu egiten dira, zenbait alderdi zehaztearren: 26/2007 Legea, 2007ko urriaren 23koa, Ingurumen Erantzukizunarena; eta 34/2007 Legea, 2007ko azaroaren 15ekoa, Airearen Kalitatearena eta Atmosfera Babestearena. 2007ko urriaren 23ko 26/2007 Legearen kasuan, aldatu egiten da 2.1.b) artikulua: «itsas uren egoera ekologikoa» esamoldearen ordeaz, «itsas uren ingurumen-egoera» jartzen da, Itsas Ingurunea Babesteko 2010eko abenduaren 29ko 41/2010 Legearen 7.4 artikuluko erregulazioari jarraikiz. Lege horren 45.3 artikulua ere aldatu egiten da: zehazten da isiltasun negatiboa aplikatuko dela behin agindu horretan ingurumen-erantzukizuna eskatzeko prozedura ebazteko ezartzen den gehieneko epea igarotakoan, prozedura ofiziosz abiarazten den kasuetan nahiz alde batek eskatuta abiarazten denean. 2007ko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen aldaketari dagokionez, aldatu egiten da 13.2 artikulua, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuen 2002ko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen ereduari jarraitzeko; izan ere, Konstituzioaren 149.1.23 artikulua araberak, epeak oinarritzko legegintza dira, eta isiltasun negatiboa aplikatuko da, legean ebazpena emateko ezartzen den epea igarotzen delarik.

**Artikulu bakarra.** *Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea aldatzea.*

Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea honela aldatzen da:

Bat. 2. artikulua honela idatzita geratzen da:

«2. artikulua. *Printzipioak.*

Lege hau honako printzipio hauetan oinarritzen da:

- a) Funtsezko prozesu ekologikoei eta oinarritzko bizi-sistemei iraunaraztea eta giza ongizaterako ekosistemen zerbitzuak babestea.
- b) Biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzea eta leheneratzea.
- c) Baliabideak egoki erabiltzea natura-ondarearen eta, bereziki, espezie eta ekosistemen ustiapen jasangarria, kontserbazioa, leheneratzea eta hobekuntza bermatzeko, eta biodibertsitatearen galera garbia eragozteko.
- d) Ekosistema naturalen, dibertsitate geologikoaren eta paisaiaren aniztasuna, apartekotasuna eta edertasuna kontserbatzea eta zaintzea.
- e) Natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko, modu jasangarrian erabiltzeko, hobetzeko eta leheneratzeko eskakizunak politika sektorialetan txertatzea, eta, bereziki, politikaren, ekonomiaren eta gizartearen eremuetan erabakiak hartzeko garaian, eta bidezko parte-hartze zuzena izatea baliabide genetikoaren erabileraren ondoriozko onuren banaketan.
- f) Ingurumenaren babes gailentzea lurralde- eta hirigintza-antolamenduari, eta gailentasun horren oinarritzko kasuak.
- g) Kontuz ibiltzea naturaguneei edo basaespezieei eragin diezaieketen esku-hartzeetan.
- h) Herritarrei informazioa emango zaiela bermatzea eta biodibertsitatearen garrantziari buruz kontzientziatzea, bai eta politika publikoak diseinatu eta betearazteko garaian herritarrek parte hartzea ere, lege honetako helburuak betetzera bideratutako xedapen orokorrak lantzea barne.
- i) Klima-aldaketaren ondorioz sortzen ari diren arazoak prebenitzea, hura arintzea eta hartara egokitzea, bai eta haren efektu kaltegarriak aurre egitea ere.
- j) Naturagune edo gune erdinaturalei lotutako hobekuntza-prozesuek garapenera jasangarritasunari laguntzea.
- k) Gune babestuetan dauden lurraldeetako biztanleek eta jabeek gune horietan egiten diren eta natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzearekin koherenteak diren jardueretan eta jardueren ondoriozko irabazietan parte hartzea.»

Bi. 3. artikulua honela idatzita geratzen da:

«3. artikulua. *Definizioak.*

Lege honetan, honako hitz hauek ondoren adierazten den bezala ulertuko dira:

1. Mendi-inguruak: inguruko lurraldeekin alderatuta altimetria garaia eta etenik gabea duten lurralde jarraitu eta zabalak dira, eta, dituzten ezaugarri fisikoen ondorioz, gradiente ekologikoak agertzen dira; gradiente horiek baldintzatu egiten dute ekosistemen antolamendua, eta eragina edukitzen dute ekosistema horietan geratzen diren izaki bizidunengan eta gizarteetan.

2. Espezie batentzako inguru kritikoa: banaketa-inguruko sektore batzuk izaten dira, eta espezie bat ongi kontserbatzeko funtsezkoak diren habitatak egoten dira haietan, edo, espezie batentzat egoera estrategikoan daudelako, egoki iraunarazi behar izaten zaie.

3. Biodibertsitatea edo dibertsitate biologikoa: edozein iturritako organismo bizien aldakortasuna, hala nola, besteak beste, lehorreko eta itsasoko ekosistemak eta uretako beste ekosistema batzuk eta haien osatzen dituzten gune ekologikoak; espezie bakoitzaren barneko, espezieen arteko eta ekosistemen arteko dibertsitatea biltzen du.

4. Jakintza tradizionala: natura-ondareari eta biodibertsitateari loturik tokian tokiko biztanleek dituzten jakintza, berrikuntza eta azturak, esperientzian oinarrituta garatuak eta toki bakoitzeko kulturaren eta ingurumenaren arabera moldatuak.

5. Kontserbazioa: egoera onuragarrian iraunaraztea natura-ondareari eta biodibertsitateari eta, batik bat, basafauna eta basafiorako espezieen populazioen habitat naturalei eta erdinaturalei, edo haien leheneratzea, eta hori lortzeko hartu behar diren neurriak betetzea.

6. In situ kontserbazioa: ekosistemak eta habitat natural eta erdinaturalak kontserbatzea; basaespezieen populazio bideragarriak beren ingurune naturalean iraunaraztea eta berreskuratzea, eta, hezi eta hazitako espezieak, berriz, beren propietate espezifikoak garatu dituzten inguruneetan iraunarazi eta berreskuratzea.

7. Ex situ kontserbazioa: dibertsitate biologikoaren osagaiak beren habitat naturaleetatik kanpo kontserbatzea.

8. Igarobide ekologikoa: hedadura eta eraketa aldakorreko lurraldea izaten da, eta funtzionalki lotzen ditu bereizita dauden basafiora eta basafaunarentzat aparteko esangura duten naturaguneak, bere kokapen eta kontserbazio-egoeratik; lotura horrek zenbait prozesu ekologikori ematen die bide: besteak beste, basaespezieen populazioen arteko hartu-eman genetikoa edo espezie horietako aleen migrazioa.

9. Lurralde-jagoletza: estrategia edo teknika juridiko batzuen multzoa da, eta, horien bitartez, lurraldearen jabe eta erabiltzaileak inplikatu egiten dira natura, kultura eta paisaiaren balio eta baliabideak kontserbatzen eta erabiltzen.

10. Ekosistema: unitate funtzional gisa elkarri eragiten dioten landare-, animalia- eta mikroorganismo-komunitateek eta haien ingurune bizigabeak eratzen duten konplexu dinamikoa da.

11. Espezie autoktonoa: berezko banaketa-inguru naturalean dagoena.

12. Desagertutako espezie autoktonoa: berezko banaketa-inguru naturaletik iraganean desagertu zen espezie autoktonoa.

13. Espezie exotiko inbaditzailea: ekosistema edo habitat natural zein erdinatural batean sartu edo finkatzen dena eta aldaketa eta mehatxua dakartzana jatorrizko dibertsitate biologikoarentzat, dela portaera inbaditzaileagatik edo dela kutsadura genetikoa eragiteko arriskuagatik.

14. Habitat baten kontserbazio-egoera: habitat natural edo erdinatural batean eta bertan bizi diren ohiko espezieengan ondorioak dituzten eragileen multzoak sortzen duen egoera; epe luzera, eragile horiek ondorioak izan ditzakete habitataren banaketa naturalean, egituraren eta funtzioetan, eta eragile horien mende egon daiteke lurralde bateko ohiko espezieek bizirautea.

15. Habitat natural baten kontserbazio-egoera onuragarria: onuragarria da egoera, baldin eta banaketa-inguru naturala egonkorra bada edo handitzen ari bada; badaude habitata epe luzera iraunarazteko behar diren egitura eta funtzio espezifikoak, eta egoten jarrai dezakete aurreikusten den etorkizunean; eta habitateko espezieen kontserbazio-egoera onuragarria da.

16. Espezie baten kontserbazio-egoera onuragarria: onuragarria da egoera, baldin eta espezie baten populazioen dinamikak adierazten badu espeziea ezinbesteko elementua dela bere habitatetan eta epe luzera ere izaten jarrai dezakeela; banaketa-inguru naturala ez da ari murrizten, eta ez dago murrizteko mehatxurik ere aurreikusten den etorkizunean; badago habitat bat hedadura nahikoa duena espeziearen populazioei epe luzean iraunarazteko, eta, ziurrenik, egoten jarraituko du.

17. Kanpo-efektua: ekintza batek haren helburu izan gabe eragiten duen efektu oro.

18. Geodibertsitatea edo dibertsitate geologikoa: Lurraren eboluzioaren emaitza eta lekuko diren elementu geologikoen aniztasuna —arrokak, mineralak, fosilak, lurzorua, erliebe-formak, formazio eta unitate geologikoak eta paisaiak barne—.

19. Geoparkeak edo parke geologikoak: lurralde mugatuak dira; forma geologiko paregabeak dauzkate, garrantzi zientifiko, apartekotasun edo edertasun berezikoak, eta adierazgarriak dira eboluzio geologikoaren historia eta forma horiek sorrarazi dituzten gertaera eta prozesuak ezagutzeko. Gearekin lotura duten arkeologia-, ekologia- edo kultura-balioengatik nabarmentzen diren lekuak ere izan daitezke.

20. Habitat naturalak: lehorreko edo uretako eremuak dira, ezaugarri geografiko, abiotiko eta biotikoengatik bereizten dira, eta guztiz naturalak zein erdinaturalak izan daitezke.

21. Espezie baten habitata: faktore abiotiko eta biotiko espezifiko batzuk dituen ingurunea da, eta espezie bat bertan bizi da bizi-zikloaren fase batean.

22. Kudeaketa-tresnak: izen hori hartzen du naturagune bat eta haren erabilerak kudeatzeko edozein teknikak, baldin eta jendaurreko informazio-prozesua igaro badu, formalki onartu bada eta argitaratu bada.

23. Material genetikoa: jatorria landare, onddo, animalia, mikrobio edo bestelako izakiren batean duen material oro, herentziaren unitate funtzionalak dituena.

24. Konpentsazio-neurriak: plan edo proiektu batean ezarritako neurri espezifikoak dira, eta plan edo proiektu horrek espezie edo habitat batean duen inpaktu negatiboa ahalik eta modu zehatzenean konpentsatzea dute xede.

25. Leku baten kontserbazio-helburua: gune batek kontserbazio-egoera onuragarri bat lortzeko zer populazio-maila eduki behar duen espezieetan eta zer azalera eta kalitate eduki behar duten habitatek.

26. Paisaia: lurraldearen edozein zati, herritarrek hautematen duten moduan; haren izaera faktore naturalen eta/edo giza faktoreen ekintzaren eta elkarrekintzaren emaitza da.

27. Natura-ondarea: dibertsitate biologikoaren eta geologikoaren iturri diren naturako ondasun eta baliabideen multzoa; balio esanguratsua izaten dute ondasun eta baliabide horiek ingurumenaren, paisaiaren, zientziaren edo kulturaren aldetik.

28. Baliabide biologikoak: gizateriarentzat balio edo onura erreala nahiz potentziala duten baliabide genetikoak, organismoak edo haien zatiak, populazioak edo ekosistemetako beste edozein osagai biotiko.

29. Baliabide genetikoak: balio erreala edo potentziala duen material genetikoa.

30. Natura-baliabideak: gizakiak bere premiak asetzeko balia dezakeen naturako edozein osagai, gaur egun balioa duena edo balioa izan dezakeena. Esate baterako, honako hauek: paisaia naturala; lurrazaleko eta lurpeko urak; lurzorua, zorupea eta lurrak, haiek batik bat zertarako erabil daitezkeen aintzat hartuta —



nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak, basogintzakoak, ehizarakoak eta babeserakoak—; biodibertsitatea; geodibertsitatea; baliabide genetikoak eta biziaren euskarri diren ekosistemak; hidrokarburoak; baliabide hidroenergetikoak, eolikoak, eguzkiarenak, geotermikoak eta horien antzekoak; atmosfera eta espektroradioelektrikoa, mineralak, arroak eta beste baliabide geologiko berriztagarri eta berriztaezin batzuk.

31. Biosfera-erreserbak: UNESCOren MAB programan biosfera-erreserba deklaratu diren lurraldeak dira; Espainiako Erresuma programa horri atxikita dago, eta natura-ondarea zein natura-baliabideak modu integratuan, jasangarrian eta partizipatiboan kudeatzeko programa bat da.

32. Ekosistemak leheneratzea: ekosistemen funtzionaltasuna eta bilakaerahalmena berrezartzeko eta helduaroko egoera batera eramateko xedea duten jardueren multzoa.

33. Taxona: ezaugarri komunak dituzten organismoen taldea.

34. Desagertutako taxona: berezko banaketa-inguru naturaletik iraganen desagertu zen taxon autoktonoa.

35. Taxon autoktonoak: leku jakin batean berez dauden taxonak eta baita desagertu direnak ere, desagertutakorik baldin badago.

36. Natura-ondarea modu jasangarrian erabiltzea: epe luzera murrizketarik eragingo ez duen moduan eta erritmoan erabiltzea natura-ondarearen osagaiak; hartara, eutsi egingo zaie egungo eta etorkizuneko belaunaldien beharizanak asebetetzeko aukerei.

37. Lurralde-jagoletzako erakundea: irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatua da, eta, besteak beste, lurraldea jagoteko akordioak egiten ditu natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko.

38. Ondare geologikoa: zientziaren, kulturaren eta/edo hezkuntzaren aldetik balioa duten natura-baliabide geologikoen multzoa; formazio eta egitura geologikoak, luraren formak, mineralak, arroak, meteoritoak, fosilak, lurzorua eta bestelako agerpen geologiko batzuk izan daitezke, eta honako hauek ezagutzeko, ikertzeko eta interpretatzeko aukera ematen dute: a) Lurraren jatorria eta eboluzioa, b) Lurra modelatu duten prozesuak, c) iraganeko eta oraingo klimak eta paisaiak, eta d) biziaren jatorria eta eboluzioa.

39. Itsas ingurunea: Espainiaren subiranotasunaren edo jurisdikzioaren mende dauden itsas urak eta itsasoaren hondoa, zorupea eta natura-baliabideak.

40. Espezie baten egoera kritikoa: kritikoa da egoera, baldin eta espezie batek basaegoeran desagertzeko berehalako arriskua badu, bideragarritasun demografikoaren edo habitat baten azterketaren arabera, edo eskura dagoen informazio zientifiko onenean oinarrituta egindako diagnostiko baten arabera.

41. Lorategi botanikoa: ex situ kontserbatzeko erakundea (publikoa, pribatua edo mistoa) edo instalazioa, landare bizien bilduma zientifikoak ikusgai dituen; landareak iraunarazi, landu eta hedatu egiten ditu, landare-dibertsitatea ikertzeko, ezagutarazteko, irakasteko eta kontserbatzeko helburuak aldi berean betetzeko.

42. Askatzea: arrantzarako edo ehizarako balia daitezkeen espezieetako aleak aske uztea; inbaditzailetzat katalogatu ez diren espezie aloktonoen kasuan, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko 2007ko abenduaren 13ko 42/2007 Legea indarrean jarri aurretik askatze mota horiek baimenduta egon diren ibai-tarte, urmael edo zingiretan edo ehizarako lursailetan soilik utzi ahal izango dira aske, betiere ale horiek lehenbailehen harrapatzeko asmoz eta, nolana ere, naturalizatu baino lehen.

43. Baliabide genetikoak erabiltzea: baliabide genetikoaren osaera genetikoari edo/eta biokimikoari buruzko ikerketa- eta garapen-jarduerak egitea, baita bioteknologia aplikatuta ere, Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren 2. artikuluan finkatutako definizioari jarraikiz.»

Hiru. 4. artikulua honela idatzita geratzen da:

«4. artikulua. *Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen eginkizun sozial eta publikoa.*

1. Natura-ondareak eta biodibertsitateak eginkizun sozial esanguratsua betetzen dute, pertsonen garapenarekin, osasunarekin eta ongizatearekin lotura estu-estua dutelako eta garapen sozial eta ekonomikoari laguntzen diotelako.

2. Lege honen helburuak lortzeko jarduerak onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduera deklaratu daitezke ondorio guztietarako eta, bereziki, kalte egin dakiekeen ondasun edo eskubideak kentzeari dagokionez.

3. Gune babestuak kontserbatzeko eta leheneratzeko beharrezkoak diren obrak, espezie mehatxatuak kontserbatzekoak edo desagertzeko arriskuan dauden habitatak kontserbatzekoak, batik bat fenomeno katastrofikoei edo ezohikoei aurre egiteko direnak, interes orokorreko obra deklaratu ahal izango ditu Estatuak, bere eskumenen esparruan, betiere eraginpeko autonomia-erkidegoek alde aurretik txostena eginda. Deklarazio hori Estatuko lege baten bidez egingo da.

4. Gune babestuen plangintzan eta kudeaketan, nahiz habitat eta espezieen kontserbazioan, natura-baliabideen jabe eta erabiltzaileekin borondatezko hitzarmenak sinatzea sustatuko da, bai eta gizarte zibilak biodibertsitatearen kontserbazioan parte hartzea ere.»

Lau. 5. artikulua honela idatzita geratzen da:

«5. artikulua. *Botere publikoen betebeharrak.*

1. Botere publiko guztiek, bakoitzak bere eskumen-esparruan, zainduko dute kontserbatu eta zentzuz erabiltzen dela natura-ondarea lurralde nazional osoan — itsas ingurunea barne—, ekonomia-eremu eskusiboan eta plataforma kontinentalean, titularra edo araubide juridikoa edozein izanik ere, eta bereziki aintzat hartuta babes bereziko araubidean dauden habitat naturalen eta basaespezieen motak.

2. Administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-esparruan:

a) Lege honen helburuak betetzeko lagungarri izango diren jarduerak eta parte-hartzea sustatuko dituzte.

b) Natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko pizgarri positiboak garatu eta aplikatuko dituzte, eta kontserbazioaren kontrako pizgarriak identifikatu eta, ahal duten heinean, ezabatu egingo dituzte.

c) Natura kontserbatzeko ekimen pribatuak egite aldera, neurri fiskalak eta bestelako pizgarri ekonomikoak erabil daitezten sustatuko dute, eta kendu egingo dizkiete pizgarriak ekimenei, baldin eta eragin negatiboa badute biodibertsitatea kontserbatzeko eta natura-ondarea modu jasangarrian erabiltzeko.

d) Heziketa eta informazio orokorra sustatuko dituzte, prestakuntza-programen bitartez natura-ondarea eta biodibertsitatea babestu egin behar direla ikusarazteko, eta arreta berezia eskainiko diete lurralde nazionalako eta itsas inguruneko erabiltzaileei.

e) Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen kontserbazio-egoera zein den eta aldaketak eragiten dituzten kausak zeintzuk diren jakiteko tresnak eskuratuko dituzte, hartu beharreko neurriak diseinatzeko, klima-aldaketara egokitze eta hura arintzeko neurriak barne, klima-aldaketak biodibertsitatean dituen arrisku eta inpaktuak murrizteko eta klima-aldaketaren testuinguruan espezieen biziraupena ziurtatzeko.

f) Politika sektorialetan txertatuko dute zein helburu eta aurreikuspen diren beharrezkoak natura-ondarea kontserbatzeko eta balioztatze, biodibertsitatea eta geodibertsitatea babesteko, natura-baliabideak kontserbatzeko eta modu

jasangarrion erabiltzeko, habitatak zatikatzea prebenitzeko eta ekosistemen osotasuna iraunarazteko eta, hala badagokio, leheneratzeko.

g) Dibertsitate biologikoari buruzko jakintzak, oinarri zientifikoa eta teknologiak areagotzea sustatuko dute, bai eta dibertsitate horren balio eta funtzionamenduari, egoera eta joerei eta galeraren ondorioei dagokienez ere.»

Bost. 6. artikulua honela idatzita geratzen da:

«6. artikulua. *Itsasoko biodibertsitatearen gainean administrazio publikoek dituzten eskumenak.*

1. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren bitartez, Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio lege honetan aipatzen diren eginkizunak betetzea itsas inguruneke espezie, gunee, habitat edo inguru kritiko guztiei dagokienez, baina itsasertzeko autonomia-erkidegoen eskumenak alde batera utzi gabe.

Era berean, Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio eginkizun horiek betetzea ekonomia-eremu eksklusiboan, plataforma kontinentalean eta nazioarteko zuzenbideari atxikitako itsasarteetan edo itsas zabaleko guneeetan.

2. Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio itsas nabigazioari eta hari lotutako jardueri mugak edo debekuak ezartzea, bai eta xedapen honen eraginpeko itsas uren kutsadura prebenitzea eta horri aurre egitea ere.

3. Halaber, Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio artikulua honetako aurreko puntuetan aipatutako eginkizunak betetzea nazioarteko zuzenbideari atxikitako itsasarteetako edo itsas zabaleko guneeetan.

4. Autonomia-erkidegoei dagokie lege honetan aipatzen diren eginkizunak betetzea, honako hauen kasuan: itsas inguruneke espezie (migrazio handiak egiten ez dituztenak) eta guneeak, habitatak edo inguru kritikoak, betiere baldin eta itsasoko ekosistemak jarraitutasun ekologikoa badauka babestu behar den lehorreko naturagunearekin, dagoen ebidentzia zientifiko onenaren bermearekin.

5. Artikulu honetan aipatu diren eginkizunak administrazio eskudunak beteko ditu, betiere administrazio arteko lankidetzaren eta laguntzaren printzipioei jarraikiz.»

Sei. 9. artikuluko 1. eta 2. zenbakiak honela idatzita geratzen dira:

«1. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioa egingo du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, autonomia-erkidegoen eta erakunde nahiz elkarte zientifiko, ekonomiko eta sozialen laguntzarekin, eta eguneratuta edukiko du; inbentario horretan, natura-ondarea osatzen duten lehorreko eta itsasoko elementu guztien banaketa, ugaritasuna, kontserbazio-egoera, erabilera eta beharrezko irizitako beste edozein informazio jasoko da, eta bereziki erreparatuko zaie kontserbazio-neurri espezifikoak behar dituzten edo Batasunaren intereseko deklaratu diren elementuei.

2. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioaren edukia eta egitura erregelamendu bidez zehaztuko dira, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren; inbentario horretan, gutxienez, honako hauei buruzko informazioa sartuko da:

- 1.a Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoa.
- 2.a Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrenda, Basaespezie Mehatzatuen Espainiako Katalogoa barne dela.
- 3.a Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa.
- 4.a Naturagune Babestuen, Natura 2000 Sarearen eta Nazioarteko Tresnek Babestutako Inguruen Espainiako Inbentarioa.
- 5.a Basoen Espainiako Estatistikaren Inbentarioa.
- 6.a Basaespezieen Material Genetikoaren Bankuen Espainiako Inbentarioa.
- 7.a Ehiza eta Arrantzaren Espainiako Inbentarioa.
- 8.a Parke Zoologikoen Espainiako Inbentarioa.

9.a Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen inguruko Jakintza Tradizionalen Espainiako Inbentarioa.

10.a Interes Geologikoko Lekuen Inbentario bat, gutxienez VIII. eranskinean bildutako unitate eta testuinguru geologikoen adierazgarri izango dena.

11.a Itsasoko Habitat eta Espezieen Espainiako Inbentario bat.

12.a Lehorreko Espezieen Espainiako Inbentario bat.»

Zazpi. 10. artikulua honela idatzita geratzen da:

«10. artikulua. *Adierazleen Sistema.*

Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentariotan Adierazleen Sistema bat finkatuko da, emaitzak modu sintetikoan emateko; hartara, gizarte osoari helarazi ahal izango zaizkio, erabakiak hartzeko prozesuetan txertatu, eta nazioz gaindiko eskalan integratu. Adierazleak lantzeko garaian, autonomia-erkidegoek parte hartuko dute, eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluak eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak alde aurretik txostena eginda onartuko dira, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren agindu baten bidez.

Adierazle nabarmenenak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Estatistika Eragiketen Inbentariora eta Estatistika Plan Nazionalera eramango dira.»

Zortzi. 11. artikulua honela idatzita geratzen da:

«11. artikulua. *Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen egoerari buruzko txostenak.*

Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioko datuetan oinarrituta, txosten bat egin eta argitaratuko du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak urtean behin, autonomia-erkidegoen eta, hala badagokio, Estatuko Administrazio Orokorren laguntzarekin, Adierazleen Sistemako emaitzen balioen, analisiaren eta interpretazioaren berri emateko. Txosten hori Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordean eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluan aurkeztu behar da, publiko egin aurretik.

Era berean, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen egoerari eta bilakaerari buruzko txosten bat idatzi beharko da sei urtean behin, eta arlo horretan hartutako politika publiko nagusiekin lortutako emaitzen ebaluazioa ere bildu beharko du. Txosten hori Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluan eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialean aurkeztu behar da, publiko egin aurretik.»

Bederatzi. 13. artikulua honela idatzita geratzen da:

«13. artikulua. *Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoa lantzea eta onartzea.*

1. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoa landuko du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, gainerako ministerioen laguntzarekin eta, bereziki, Sustapen Ministerioaren laguntzarekin merkataritza-itsasketari eta aireko zirkulazioari eta garraioari dagokionez, eta departamentu horren zein Defentsa Ministerioaren laguntzarekin aireko espazioa kudeatzeari dagokionez.

Autonomia-erkidegoek ere parte hartuko dute plan hori egiteko prozesuan, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordearen bitartez, eta batzorde horrek Ingurumenaren Konferentzia Sektorialera helaraziko du, onartzeko.

2. Plana lantzeko prozeduran, jendaurrean jartzeko eta honako hauei kontsulta egiteko tramiteak bete behar dira nahitaez: komunitate zientifikoari, eragile ekonomiko eta sozialei, eraginpeko administrazio publikoei eta lege honen helburuak lortzea xede duten irabazi-asmorik gabeko erakundeei.

3. Edonola ere, Planak gainditu egin beharko du Ingurumen Ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritako ingurumen-ebaluazioa.

4. Plana errege-dekretu baten bidez onartuko da, gehienez ere bi urteko epean, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluak aldez aurretik txostena eginda. Errege-dekretu horretan, Planak zenbateko indarraldia izango duen zehaztu behar da, eta, gehienez ere, hamar urtekoa izango da.»

Hamar. III. kapitulu berria txertatzen da, 15. artikulua berria duela, eta honela idatzita geratzen da:

### «III. KAPITULUA

#### **Azpiegitura berdearen eta konektibitate eta leheneratze ekologikoen Estatuko estrategia**

15. artikulua. *Azpiegitura berdearen eta konektibitate eta leheneratze ekologikoen esparru estrategikoa.*

1. Espainiako lurraldearen konektibitate ekologikoa eta leheneratzea bermatzeko, Azpiegitura berdearen eta konektibitate eta leheneratze ekologikoen Estatuko estrategia landuko du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, autonomia-erkidegoen laguntzarekin —Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordearen bitartez— eta inplikaturako beste ministerio batzuen laguntzarekin, lege hau indarrean jartzen denetik kontatzen hasita gehienez ere hiru urteko epean, eta grafikoki ongi ikusteko moduko kartografia egokia izango du estrategia horrek. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluak eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak aldez aurretik txostena eginda, baterako agindu baten bidez onartuko da estrategia hori, estrategia lantzen parte hartu duten ministerioek proposatuta, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

2. Azpiegitura berdearen eta konektibitate eta leheneratze ekologikoen Estatuko strategiaren helburua jarraibide hauek finkatzea izango da: batetik, Espainiako itsaso eta lehorreko lurraldearen azpiegitura berdea osatzen duten lurraldeko elementuak identifikatu eta kontserbatzeko jarraibideak eta, bestetik, administrazio publikoek egiten duten lurralde-plangintza sektorialaren bitartez honako hauek ahalbidetu eta ziurtatzeko jarraibideak: ekosistemen konektibitate ekologikoa eta funtzionaltasuna, klima-aldaketa arintzea eta haren efektuetara egokitzea, konektibitateko estrategikoak diren inguruak desfragmentatzea eta narriaturako ekosistemak leheneratzea.

3. Azpiegitura berdearen Estatuko estrategian, besteak beste, honako elementu hauek hartuko dira kontuan bereziki: gune babestuak, desagertzeko arriskuan dauden habitatak eta galzoriko espezieak, mendi-inguruak, ibai-ibilguak, hezeguneak, abelbideak, korronte ozeanikoak, itsaspeko kanoiak, konektibitatea errazten duten migrazio-ibilbideak, ekonomia-sektoreek aplikaturako jardunbide egokien ondorioz sortutako natura-balio handiko sistemak, leheneratu beharreko lehentasunezko habitatak, natura kontserbatzeko bankuen eraginpeko lursailak eta administrazio eskudunek Paisaiaren Europako Hitzarmena aplikatzeko erabiltzen dituzten tresnak. Hitzarmen hori Florentzian sinatu zen, 2000. urteko urriaren 20an.

4. Estatuko strategiaren jarraibideetan oinarrituta, eta estrategia hori onartzen denetik kontatzen hasita gehienez ere hiru urteko epean, autonomia-erkidegoek beren strategiak garatu beharko dituzte, eta, gutxienez, Estatuko estrategian sartzen diren helburuak bildu beharko dituzte.»

Hamaika. III. kapitulu IV. kapitulu bihurtzen da.

Hamabi. 15etik 23ra bitarteko artikuluen zenbakiak aldatu egin behar dira; hurrenez hurren, orain, 16tik 24ra bitarteko artikulua izango dira.

Hamahiru. Aldatu egiten da 17. artikulua 1. zenbakia, eta 4. zenbaki berria gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«1. Esparru jakin bateko natura-ondarea eta -baliabideak osatzen dituzten sistemak mugatzeko, tipifikatzeko, sarean txertatzeko eta sistema horiek lurraldearen gainerakoarekin dituzten harremanak zehazteko tresna espezifikoak dira natura-baliabideak antolatzekeo planak, eta tresna gehiago ere ezar daitezke autonomia-erkidegoko legerian. Plan horien indarraldia eta berrikusteko epeak autonomia-erkidegoetako araudiak zehaztuko ditu, edo, bestela, Estatuko Administrazio Orokorrek, bere eskumenen esparruan.»

«4. Natura-baliabideak antolatzekeo planetan, proposatutako neurriei buruzko memoria ekonomikoa txertatu behar da.»

Hamalau. Aldatu egiten da 19.4 artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«4. Udalek, beren eskumenen esparruan, salbuespenak proposatu ahal izango dituzte, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 26. artikuluan ezarritako gutxienezko zerbitzuak emango direla bermatzeko. Salbuespen horiek behar beste arrazoituta egongo dira, eta autonomia-erkidegoko organo eskudunak onartu beharko ditu.»

Hamabost. Aldatu egiten da 24. artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«24. artikulua. *Prebentziozko babesaren araubideari atxikitako naturaguneak.*

1. Autonomia-erkidegoak lortu duen informazioa aintzat hartuta ongi kontserbatutako eremu bat mehatxupean dagoela ondorioztatzen bada kontserbazio-egoera hori hautsiko duen asaldura-faktore nabarmen bat dela eta, asaldura-faktore hori desagerrarazteko edo murrizteko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte administrazio publiko eskudunek.

2. Asaldura-faktore hori desagerraraztea edo murriztea ezinezkoa baldin bada, prebentziozko babes-araubide bat ezarriko da, honako honetan oinarritua:

a) Lursailen jabeek autonomia-erkidegoetako agintaritzako agente eta ordezkariak informazioa eta sarbidea emateko betebeharra izango dute.

b) Eremu horretako Natura Baliabideak Antolatzekeo Plana abiaraziko da berehala, lehendik abiarazia ez badago.

c) Lege honen aurreko artikuluan ezartzen diren neurriak hartzeko aukera alde batera utzi gabe, hala badagokio, babes-araubideren bat aplikatuko da, betiere interesdunei entzunaldia emateko, informazioa jendaurrean jartzeko eta eraginpeko administrazioei kontsulta egiteko tramiteak bete ostean.»

Hamasei. 24. artikulua 25. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«25. artikulua. *Desagertzekeo Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoa.*

1. Desagertzekeo Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoa sortzen da, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren mende, eta Estaturako katalogo administratiboa izango da; erregelamendu bidez arautuko da, eta bertan bilduko dira desagertzekeo arriskuan dauden habitatak, betiere babes- eta kontserbazio-neurri espezifikoak behar badira habitat horiek kontserbatzeko edo, hala badagokio, leheneratzeko, betetzen dutelako, gutxienez, honako egoera hauetako bat:

1.a Banaketa-inguru oso murriztua dute, eta gutxitzen ari dira.

2.a Banaketa-inguru naturalaren zati handi batean suntsituta daude.

3.a Konposizioari, egiturari eta eginkizun naturalei dagokienez, hondamen nabarmena jasan dute banaketa-inguru naturalaren zati handi batean.

4.a Banaketa-inguruaren zati nabarmen batean epe motz edo ertainera atzera bueltarik gabeko transformazio-arrisku handian daude, klima-aldaketaren efektuengatik transformazio-arriskua barne dela.

2. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak sartuko ditu habitatak Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoan, bai Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak proposatuta, autonomia-erkidegoen alde aurreko ekimenez, bai ministerioak berak proposatuta, hori egitea gomendatzen duen informazio teknikoa edo zientifikoa baldin badago.

3. Herritar edo elkarte orok eska dezake katalogoan sartzeko prozedura abiaraztea, betiere eskaerarekin batera proposatutako neurria justifikatzen duen argudio zientifikoa aurkeztuz gero.»

Hamazazpi. 25. artikulua 26. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«26. artikulua. *Ondorioak.*

Habitat bat Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoan sartzek honako ondorio hauek eragingo ditu:

a) Azalera egoki bat txertatuko da naturaguneak kudeatzeko tresna edo babesteko figura berri nahiz zahar batean.

b) Atzeraldia mantsozke eta habitat horiek desagertzeko arriskua desagerrarazteko beharrezkoak diren neurriak zehaztu eta hartuko ditu administrazio eskudunak xede horietarako egokiak diren planifikatzeko edo bestelako tresnetan.»

Hemezortzi. 26. artikulua 27. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«27. artikulua. *Kontserbatzeko eta leheneratzeko estrategia eta planak.*

1. Desagertzeko arriskuan dauden habitatak kontserbatzeko eta leheneratzeko estrategiak onartuko ditu Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak proposatuta eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluak alde aurretik txostena eginda.

2. Desagertzeko arriskuan dauden itsasoko habitatak kontserbatzeko eta leheneratzeko estrategiak onartuko ditu Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, betiere baldin eta habitat horiek dauden guneeetan itsasoko ekosistemak jarraitutasun ekologikorik ez badauka babestu behar den lehorreko naturagunearekin, dagoen ebidentzia zientifiko onenaren bermearekin.

3. Kontserbatzeko eta leheneratzeko onartutako plan edo kudeaketa-tresnen orientazio-esparrua eratuko dute estrategia horiek, eta, gutxienez, honako elementu hauek bildu beharko dituzte: egoeraren eta mehatxu nagusien diagnostikoa, aurreikusten diren klima-aldaketaren inpaktuak eta gauzatu beharreko ekintzak. Estrategia horiek edo, gutxienez, onartu izanaren aipamena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta eduki guztia argitaratu duen egoitza elektronikora jotzeko bidearen berri emango du.»

Hemeretzi. 27. artikulua 28. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«28. artikulua. *Naturagune babestuak definitzea.*

1. Naturagune babestu izango dira lurralde nazionaleko gunek —ur kontinentalak barne— eta itsas ingurunea —ekonomia-eremu eskusiboa eta plataforma kontinentalak barne—, betiere honako baldintza hauetako bat, gutxienez, betetzen badute eta naturagune babestu deklaratu badira:

a) Bertako natura-sistema edo -elementuak adierazgarriak, apartekoak, hauskorak edo mehatxatuak izatea edo interes berezikoak izatea ekologia, zientzia, paisaia, geologia edo hezkuntzaren aldetik.

b) Gunea berariaz izatea dibertsitate biologikoa, geodibertsitatea eta aurrekoei lotutako natura- eta kultura-baliabideak babestu eta iraunarazteko gune.

2. Naturagune babestuen perimetroan, soilik lehorreko esparruak, lehorreko eta itsasoko esparruak edo soilik itsasoko esparruak sar daitezke.»

Hogei. 28. artikulua 29. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«29. artikulua. *Gune babestuak erregulatzen dituzten arauen edukia.*

1. Gune babestuak erregulatzeko arauen eta kudeaketa planifikatzeko mekanismoen bitartez zehaztuko da zein tresna juridiko, finantzario eta material jotzen diren beharrezkotzat gune babestuaren deklarazioarekin lortu nahi diren helburuak modu eraginkorrean betetzeko.

2. Leku berean gune babestuetako figura desberdinak gainjartzen badira, gune horien erregulazio-arauak eta planifikazio-mekanismoak koordinatu egin behar dira dokumentu integratu bakar batean bateratzeko, kategoria bakoitzaren arabera aplikatu daitezkeen araubideek osotasun koherente bat osa dezaten. Aurrekoa ez da beteko gune babestuetako figurak zenbait administrazio publikori dagozkionean, betiere dagokion administrazio arteko lankidetzara alde batera utzi gabe.»

Hogeita bat. 29., 30. eta 31. artikulua 30., 31. eta 32. artikulua bihurtzen dira, hurrenez hurren.

Hogeita bi. Aldatu egiten da 31.4 artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«4. Parkeetan, sartzeko aukera izango dute bisitariak, baina, betiere, parkeen babesa eta parkeak dauden lursailen titularren eskubideak bermatzeko beharrezkoak diren mugekin.»

Hogeita hiru. 32. artikulua 33. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«33. artikulua. *Itsas Inguru Babestuak.*

1. Itsas ingurunekeko ekosistemak, komunitateak edo elementu biologiko zein geologikoak babesteko hautatutako naturaguneak Itsas Inguru Babestutzat jotzen dira, marearteko eta mareaz azpiko inguruak barne, baldin eta babes berezia behar badute bakanak, hauskorak, garrantzitsuak edo apartekoak direlako. Gune horiek Itsas Ingurunea Babesteko 2010eko abenduaren 29ko 41/2010 Legearen bitartez arautu den Espainiako Itsas Inguru Babestuen Sarean sar daitezke.

2. Itsas Inguru Babestuak eta euren balio naturalak kontserbatzeko, kudeaketa-tresnak edo planak onartuko dira, eta, gutxienez, honako hauek zehaztu beharko dituzte: beharrezkoak diren kontserbazio-neurriak eta natura-baliabideak ustiatzeko mugak, kasu bakoitzerakoak ez ezik baita Espainiako Itsas Inguru Babestuen Sarean sar daitezkeen inguru guztietarako egokiak direnak ere.

3. Espainiako Itsas Inguru Babestuen Sarearen Plan Zuzentzailea 2010eko abenduaren 29ko 41/2010 Legearen 29. artikuluan arautu da; Plan horretan, Sarean sartutako itsas inguru babestuetan aplikatu beharreko kudeaketako gutxienekeo irizpide komunak zehaztuko dira.»

Hogeita lau. 33. artikulua 34. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«34. artikulua. *Natura Monumentuak.*

1. Natura Monumentutzat jotzen dira naturan dauden gune edo elementu jakin batzuk, funtsean nabarmenki apartekoak, bakanak edo ederrak diren formazioz osatuak eta babes berezia merezi dutenak.



2. Natura Monumentu izango dira, halaber, zuhaitz aparteko eta monumentalak, formazio geologikoak, aztarnategi paleontologiko eta mineralogikoak, estratotipoak eta gearen gainerako elementuak, baldin eta interes berezikoak badira zientziarekin, kulturarekin edo paisaiarekin lotutako balio apartekoak edo garrantzitsuengatik.

3. Natura Monumentuetan, baliabideak ustiatzea mugatuta egongo da, honako salbuespen hauekin: ustiaketa hori kontserbatu nahi diren balioekin erabat koherente baldin bada, deklarazio- eta kudeaketa-arauetan xedatutakoari jarraikiz, edo ustiaketa hori administrazio-baimen bidez baimendu bada, dela ikerketarekin edo kontserbazioarekin lotutako arrazoiengatik edo dela ustiaketak gutxieneko inpaktua duten jarduera ekonomiko bateragarriak direlako eta ongizate sozioekonomikorako edo biztanleen ongizaterako lagungarri.»

Hogeita bost. 34. eta 35. artikulua 35. eta 36. artikulua bihurtzen dira, hurrenez hurren.

Hogeita sei. 36. artikulua 37. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«37. artikulua. *Naturagune Babestuak deklaratzeko eta kudeatzeko.*

1. Autonomia-erkidegoei dagokie beren lurralde-eremuan Naturagune Babestuak deklaratzeko eta naturagune horiek kudeatzeko formula erabakitzea.

2. Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio itsas inguruneen naturagune babestuak deklaratzeko eta kudeatzeko, betiere baldin eta itsasoko ekosistemak jarraitutasun ekologikorik ez badauka babestu behar den lehorreko naturagunearekin, dagoen ebidentzia zientifiko onenaren bermearekin. Kasu horretan, autonomia-erkidegoei dagozkien eginkizun horiek.

3. Naturagune hori babesteko erabiltzen den kategoria edo figura gorabehera, kanpoko uretako arrantza-baliabideak ustiatzeko mugak Estatuko Itsas Arrantzaren 2001eko martxoaren 26ko 3/2001 Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera izango dira.

4. Naturagune babestu bat bi autonomia-erkidegoren edo gehiagoren lurraldeetan barrena hedatzen bada, autonomia-erkidego horiek ados jarrita erabaki beharko dituzte lankidetzarako beharrezkoak diren formulak.»

Hogeita zazpi. 37.etik 40.era bitarteko artikulua 38.etik 41.era bitarteko artikulua bihurtzen dira, hurrenez hurren.

Hogeita zortzi. 41. artikulua 42. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«42. artikulua. *Natura 2000 Sarea.*

1. Natura 2000 Europako Sare Ekologikoa sare ekologiko koherente bat da, eta honako hauek sartzen dira bertan: Batasunaren Garrantzizko Lekuak (aurrerantzean, BGL) —Kontserbazio Bereziko Eremu bihurtu arte (aurrerantzean, KBE)—, KBE horiek eta hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (aurrerantzean, hegaztientzako BBE); kudeatzeko garaian, aintzat hartu behar dira bai ekologiarekin, ekonomiarekin, gizartearekin eta kulturarekin lotutako eskakizunak eta baita eskualdeko eta tokiko berezitasunak ere.

2. BGLak, KBEak eta hegaztientzako BBEak gune babestutzat hartuko dira, eta Natura 2000 Sareko gune babestu izango dira; Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek zehaztuko dituzte haien hedadura eta mugak, legeen eta plangintza-tresnen bitartez, betiere bakoitzak bere eskumen-esparruan.

3. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, autonomia-erkidegoen laguntzarekin, Natura 2000 Sarea kontserbatzeko jarraibideak landuko ditu, eta eguneratuta edukiko ditu, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Plan Estrategikoan. Jarraibide horiek guneak planifikatzeko eta kudeatzeko orientazio-esparrua eratuko dute, eta Ingurumenaren Konferentzia Sektorialaren erabaki bidez onartuko dira.

4. Natura 2000 Sareko gune deklaratzeko justifikatzen duten balioekin koherenteak diren jarduerak eta tokiko biztanleen ongizaterako eta enplegua sortzeko lagungarri diren jarduerak egin daitezkeen sustatzeko, lehentasuna emango zaie diru-laguntzak emateko garaian horrelako jarduerari, bereziki, lekuaren natura-balioak kontserbatzea edo leheneratzea xede duten jarduerari, oinarri erregulatzaileetan ezarrita baldin badago. Era berean, Estatuko Administrazio Orokorraren eta autonomia-erkidegoen eskumenen esparruan, aztertuko da ea aukerarik dagoen hobariak ezartzeko tasei, erregistroan inskribatzeko gastuei edo Nekazarien Gizarte Segurantzaren enpresa-kuotei, Natura 2000 Sareko gunearen deklarazioa justifikatzen duten balioekin koherenteak nahiz bateragarriak diren jardueren eta tokiko biztanleen ongizaterako eta enplegua sortzeko lagungarri diren jardueren kasuan.»

Hogeita bederatzi. 42. artikulua 43. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«43. artikulua. *Batasunaren Garrantzizko Lekuak eta Kontserbazio Bereziko Eremuak.*

1. BGLak dira lurralde nazionalean edo itsas ingurune osoan —ekonomia-eremu eksklusiboa eta plataforma kontinentala barne— halakotzat onartutako guneak, eta benetan lagungarri direnak hurrenez hurren lege honen I. eta II. eranskinetan agertzen diren habitat natural moten eta Batasunaren intereseko espezieen habitataren kontserbazio-egoera onuragarria iraunarazteko edo, hala badagokio, leheneratzeko, banaketa-inguru naturalean.

2. Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek kontserbazio bereziko eremu deklaratu daitezkeen lekuen zerrenda egingo dute, beren lurraldeetan dauden lekuen artetik, bakoitzak bere eskumenen esparruan eta III. eranskinetan nahiz dagokion informazio zientifikoa zehaztutako irizpideetan oinarrituta. Proposamenetan, leku horietan zer habitat natural mota dauden eta Batasunaren intereseko zer espezie autoktono dauden zehaztu behar da, eta jendaurreko informazioaren tramitea bete beharko da. Goian aipatutako jendaurreko informazioaren tramitearen ondorioz hasieran proposatutako mugak zabaldu egiten badira, jendaurreko informazioaren tramitea bete beharko da berriro.

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Europako Batzordeari proposatuko dio zerrenda, leku horiek BGLtzat onar ditzan.

BGLtzat onartzeko proposatutako guneen zerrenda Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora helaraziko da, hortik Europako Batzordera eramateko; proposamena ministeriora helarazten den unetik, prebentziozko babes-araubide baten eraginpean geratuko dira gune horiek, deklarazio formala egiten den unera bitartean habitataren eta espezieen kontserbazio-egoerak okerrera ez duela egingo bermatzeko. Gune bat BGL deklaratzeko proposamena bidaltzen bada, administrazio eskudunaren aldizkari ofizialean honako datu hauek argitaratu behar dira, sei hilabeteko epean: gune horren muga geografikoak, gunearen deklarazioa eragin duten habitatak eta espezieak, gune horietan dauden lehentasunezko habitat eta espezieak eta prebentziozko zer araubide aplikatuko den.

3. Europako Batzordeak BGLen zerrendak onartu edo handitzen dituenean, administrazio eskudunek leku horiek KBE deklaratu dituzte lehenbailehen eta, gehienez ere, sei urteko epean; horrekin batera, dagokion kudeaketa-tresna edo plana ere onartu beharko dute. Eremu horien deklarazioan lehentasuna finkatzeko, honako irizpide hauei erreparatu zaie: lekuen garrantzari, kontserbazio-egoera onuragarria iraunarazteari, Batasunaren intereseko habitat natural mota bat edo Batasunaren intereseko espezie bat lehenerazteari edo lekuok izan ditzaketen hondatzeko eta suntsitzeko mehatxuei, betiere Natura 2000 Sarearen koherentziari eustearren.»

Hogeita hamar. 43. artikulua 44. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«44. artikulua. *Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak.*

Hegaztientzako BBE deklaratuko dira lurralde nazionalako eta itsas ingurunekeo gunek —ekonomia-eremu eskusiboa eta plataforma kontinental barne—, egokienak direnak kopuruari eta azalerari dagokienez lege honen IV. eranskinean aipatzen diren hegazti-espezieak eta Espainian aldizka izaten diren espezie migratzaileak kontserbatzeko, eta asalduak saihesteko neurriak eta habitatak kontserbatzeko neurri bereziak ezarriko dira haietan, espezieen biziraupena eta ugalketa bermatzeko. Espainiako lurraldera eta Espainiako subiranotasunaren edo jurisdikzioaren mendeko itsas uretara erregulartasunez iristen diren espezie migratzaileen kasuan, aintzat hartu behar da zer premia dauden espezie horiek ugaltu, elikatu, lumaberritu, negua eman edo atseden hartzeko erabiltzen dituzten inguruak babesteko, garrantzi berezia emanda hezeguneei eta, bereziki, nazioartean garrantzi handia duten hezeguneei.»

Hogeita hamaika. 44. artikulua 45. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«45. artikulua. *Kontserbazio Bereziko Eremuen eta hegaztientzako Babes Bereziko Eremuen deklarazioa.*

KBEen eta hegaztientzako BBEen deklarazioa egingo dute Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoek, jendaurreko informazioaren prozedura bete ostean, bakoitzak bere eskumenean esparruan. Goian aipatutako jendaurreko informazioaren tramitearen ondorioz hasieran proposatutako mugak zabaldu egiten badira, jendaurreko informazioaren tramitea bete beharko da berriro.

Deklarazio horiek aldizkari ofizialetan argitaratuko dira, honako datu hauekin batera: muga geografikoak eta zein habitat eta espezieek eragin duten eremu bakoitzaren deklarazioa. Deklarazio horien berri Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari eman behar zaio, hark Europako Batzordean jakinaraz dezan, betiere Herri-administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio-prozedura erkidearen 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 10. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.»

Hogeita hamabi. 45. artikulua 46. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«46. artikulua. *Natura 2000 Sarea kontserbatzeko neurriak.*

1. KBEei eta hegaztientzako BBEei dagokienez, inguru horietan dauden habitat natural moten eta espezieen eskakizun ekologikoei erantzuteko beharrezkoak diren kontserbazio-neurriak zehaztuko dituzte Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenean esparruan. Honako elementu hauek izan beharko dituzte:

a) Kudeaketa-tresna edo plan egokiak, leku bakoitzerako espezifikokoak edo beste garapen-plan batzuetan integratuak, gutxienez lekua kontserbatzeko helburuak eta guneei kontserbazio-egoera onuragarrian iraunarazteko neurri egokiak dakartzatenak. Plan horiek bereziki kontuan hartu beharko dituzte beren lurralde osoa edo lurraldearen ehuneko handi bat leku horietan duten udalerrien beharrak, edo lekua kudeaketarekin lotutako aparteko muga espezifikokoak dituzten udalerrienak.

b) Erregelamendu-, administrazio- edota kontratu-neurri proposak.

2. Era berean, neurri proposak ezarriko dituzte administrazio eskudunek, bereziki plan edo kudeaketa-tresna horien bitartez, Natura 2000 Sareko guneean habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea eragozteko, bai eta inguru horiek hautatzea ekarri duten espezieengan eragina duten asalduak saihesteko

ere, baldin eta asaldura horiek lege honen helburuetan efektu nabarmenak izan baditzakete.

3. Ingurumen-ebaluazioari buruzko legerian ezarritako prozeduren esparruan, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte organo eskudunek habitatak hondatzea, kutsatzea eta zatikatzea saihesteko eta Natura 2000 Saretik kanpoko espezieei eragiten dieten asaldurak saihesteko, baldin eta fenomeno horiek efektu nabarmena badute habitat eta espezie horien kontserbazio-egoeran.

4. Plan, programa edo proiekturen batek, leku baten kudeaketarekin lotura zuzena izan gabe edo horretarako ezinbestekoa izan gabe, nabarmen eragin badezake gune horietako espezie edo habitatengan, dela berak bakarrik, dela beste plan, programa edo proiekturen batekin batera, gunean izango dituen eraginaren ebaluazio egokia egin beharko da; kontuan izango dira gune horren kontserbazio-helburuak, eta ebaluazio hori honako hauen arabera izango da: aplikatu daitezkeen arauak, Estatuko oinarrizko legerian ezarritakoa eta autonomia-erkidegoek emandako babes-arau osagarriak. Gunean izango diren eraginaren ebaluazioaren ondorioak aztertuta, eta artikulua honen 5. zenbakian xedatutakoa betez, ados daudela adieraziko dute plan, programa edo proiektu horiek onartzeko edo baimentzeko eskumena duten organoek, baina gune jakin horren osotasunean kalterik ez duela eragingo ziurtatu ostean, eta, hala badagokio, informazioa jendaurrean jarri ondoren. Gunearen osotasunari kalte egin zaiola zehazteko irizpideak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko ministroaren agindu baten bidez erabakiko dira, betiere Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak esan beharrekoa entzun ondoren.

5. Lekuan izango diren eraginaren ebaluazioaren ondorio negatiboak atera badira, eta, bestelako konponbiderik ezean, plan, programa edo proiektu bat egin behar bada lehen mailako interes publikoko premiazko arrazoiak direla eta (arrazoi sozial edo ekonomikoak barne direla), behar adina konpentsazio-neurri hartuko dituzte administrazio publiko eskudunek Natura 2000 Sarearen koherentzia globala babestua gera dadin bermatzeko.

Lehen mailako interes publikoko arrazoi saihestezinak daudela honako hauetakoren baten bidez deklaratu ahal izango da:

a) Lege baten bidez.

b) Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez, baldin eta Estatuko Administrazio Orokorra onartu edo baimendu beharreko plan, programa edo proiektuak badira, edo, bestela, autonomia-erkidegoko gobernu-organismoaren erabaki baten bidez. Erabaki hori behar bezala arrazoituko da, eta jendaurrean jarriko da.

Kompentsazio-neurriak planen eta programen ingurumenaren ebaluazio-prozeduran eta proiektuen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio-prozeduran zehar hartuko dira, aplikagarri den araudian xedatutakoari jarraikiz. Neurri horiek ingurumen-ebaluazioak zehazten duen plangintza- eta gauzatze-fasean aplikatuko dira.

Aplikaturako konpentsazio-neurriak Europako Batzordera igorriko dira, dagokion bidetik.

6. Leku horretan lehentasunezko habitat natural mota bat eta/edo espezie bat baldin badago —I. eta II. eranskinetan hala direla adierazten direnak—, soilik honako kontsiderazio hauek argudiatu ahal izango dira:

a) Giza osasunarekin eta segurtasun publikoarekin lotura dutenak.

b) Ingurumenerako berebiziko garrantzia duten ondorio positiboak buruzkoak.

c) Lehen mailako interes publikoko premiazko beste arrazoi batzuk, Europako Batzordeari alde aurretik kontsulta eginda.

7. Gauzatu edo betearazi egin ahal izango da edozein plan, programa edo proiektu, eragin nabarmena izan badezake ere Estatuan edo autonomia-erkidegoan galzoriko katalogatuta eta II. edo IV. eranskinetan sartuta dauden espezieengan,

baina soilik honako kausa hauek betetzen direnean eta bestelako konponbiderik ezean: giza osasunarekin eta segurtasun publikoarekin lotura dutenak, ingurumenerako berebiziko garrantzia duten ondorio positiboak buruzkoak edo lehen mailako interes publikoko premiazko beste arrazoi batzuk. Plana, programa edo proiektua justifikatzeko eta dagozkion konpentsazio-neurriak ezartzeko, 5. zenbakian ezartzen dena bete beharko da, konpentsazio-neurriak Europako Batzordera helaraztearena izan ezik.

8. Leku bat Europako Batzordeak onartutako BGLen zerrendan agertu orduko, leku hori artikulua honetako 4., 5. eta 6. zenbakietan xedatutakoaren eraginpean geratuko da.

9. Hegaztientzako BBE bat deklaratu orduko, eremu hori artikulua honetako 4. eta 5. zenbakietan xedatutakoaren eraginpean geratuko da.»

Hogeita hamahiru. 46. artikulua 47. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«47. artikulua. *Sarearen koherentzia eta konektibitatea.*

Natura 2000 Sarearen koherentzia ekologikoa eta konektibitatea hobetzeko helburuarekin, basafauna eta basafiorako espezieen migrazioarako, banaketa geografikorako eta populazioen arteko elkartruke genetikorako funtsezkoak edo biziki garrantzitsuak diren korridore ekologikoen kontserbazioa eta paisaiako elementuen eta lehorreko eta itsasoko inguruen kudeaketa sustatuko dute administrazioek, 15. artikuluan xedatutakoa aintzat hartuta, klima-aldaketak etorkizunean izan ditzakeen inpaktuak kontuan izanik.»

Hogeita hamalau. 47. artikulua 48. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«48. artikulua. *Zaintza eta jarraipena.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrek eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, Batasunaren intereseko espezieen eta habitat moten kontserbazio-egoera zainduko dute, lehentasunezko habitat natural motei eta lehentasunezko espezieei bereziki erreparatuta; halaber, IV. eranskinean zerrendatutako hegazti-espezieen kontserbazio-egoera ere zainduko dute. Jarraipen horren ezaugarriak eta metodologia komuna finkatzeko jarraibideak onartuko ditu Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak proposatuta, eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluaren esana entzun ostean.

2. Autonomia-erkidegoek Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministeriora helaraziko dituzte kontserbazio-egoeran izandako aldaketei eta 46.1 artikuluan aipatzen diren kontserbazio-neurri buruzko informazioa, neurri horien emaitzen ebaluazioa eta aplikatu beharreko neurri berrien proposamenak, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioan jasotzeko eta ministerio horrek Europako jarraibideetan eskatzen diren txosten nazionalak Europako Batzordeari helarazi ahal izateko.»

Hogeita hamabost. 48. artikulua 49. artikulua bihurtzen da.

Hogeita hamasei. 49.etik 51.era bitarteko artikulua 50.etik 52.era bitarteko artikulua bihurtzen dira.

Hogeita hamazazpi. VI. kapitulua gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«VI. KAPITULUA

**Ingurumen-informazioa Jabetza Erregistroan**

53. artikulua. *Informazio geografikoa Jabetza Erregistroan txertatzea.*

1. Hipoteka-legerian xedatutakoari jarraikiz, erregistro-finkaren informazio geografikoan bilduko da beti honako hauen informazio perimetrala: naturagune babestuak, Natura 2000 Sarea, onura publikoko mendiak eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Espainiako Inbentarioan txertatutako Hezeguneen Espainiako Inbentarioan sartzen diren eremuetako eta abelbideetako jabari publikoak.

2. Ondorio horietarako, eta autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan ezar ditzaketen ingurumen-informazioko bestelako tresna edo gune elektronikoez gain, lineako mapa-zerbitzu bat eguneratuta eduki beharko du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, irudikapen grafikoa georreferentziatuta eta metadatututa duela; mapa-zerbitzu horri esker, identifikatu eta mugatu egin ahal izango dira aurreko zenbakian aipatu ditugun esparru babestuak, bai eta datuak inportatu ere, erregistro-sistema informatiko bakarraren aplikazioan erregistro-finkekin alderatzeko. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eta Justizia Ministerioak batera emandako agindu baten bidez zehaztuko da informazio geografikoko sistemen arteko komunikazio-prozedura.

3. Erregistroko informazio orotan, bai eta finkei buruzko kalifikazio-ohar edo idatzagiritan ere, baldin eta erregistro-finken georreferentziako sistemen arabera ingurumen-arloko erabakiren bati atxikita dagoen esparruren batekin gurutzatzen badira edo mugakide badira aurreko zenbakian jasotako informazioari jarraikiz, zirkunstantzia hori nabarmendu egin beharko da lotutako lurralde-informazio moduan eta informazio-ondorioetarako soilik; nolana ere, horretaz gain, ingurumen-agintaritza eskudunekin kontsulta egitea komeni da.

4. Era berean, bigarren zenbakian aipatu den informazioa eskuragarri izango du Higiezinaren Katastroak, lege honetan ezartzen diren baldintzetan, betiere araudi erregulatuazalean xedatutakoari jarraikiz.»

Hogeita hemezortzi. 52. artikulua 54. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«54. artikulua. *Basaespezie autoktonoen kontserbazio-bermea.*

1. Estatuko Administrazio Orokorrek eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, basaegoeran bizi den biodibertsitatearen kontserbazioa bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte; horretarako, espezie horien habitatak zaintzeari emango diote lehentasuna, eta babes-araubide espezifikoko ezarriko dituzte horren premian dauden basaespezieentzat, Lege honetako 56. eta 58. artikuluetan aipatzen den kategoriaren batean txertatuta.

Era berean, VI. eranskinean zerrendatutako Batasunaren intereseko basafauna eta basaflorako aleak naturatik biltzeko prozesuak eta horien ustiaketaren kudeaketak bateragarri izan behar dute espezie horien kontserbazio-egoera onuragarriari irauraraztearekin; beraz, hori bermatzeko beharrezkoak diren neurriak ere hartu beharko dituzte.

2. Estatuko Administrazio Orokorrek espezie edo subespezie aloktonoak inportatzea edo sartzea debekatuko du, betiere espezie horiek basaespezie autoktonoekin lehian egon badaitezke, edo autoktonoen purutasun genetikoa edo oreka ekologikoak asalda baditzakete.

3. Aurreko zenbakian deskribatu ditugun egoerak bete ditzakeen espezie aloktono bat lurralde nazionalean inportatu edo sartu ahal izateko, Nekazaritza,

Elikadura eta Ingurumen Ministerioak administrazio-baimena eman beharko du, eta dagokion araudi sektorialean jasotako gainerako baldintzak ere bete beharko dira.

Basaespezie autoktonoekin lehia egon daitezkeen edo autoktonoen purutasun genetikoa edo oreka ekologikoa asalda ditzaketen taxon aloktonoen zerrenda egingo du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, gehienez urtebeteko epean, dagoen informazio tekniko eta zientifikoan oinarrituta.

Zerrenda hori Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren egoitza elektronikoa argitaratuko da, eta eguneratuta egon beharko du.

4. Aurreko zenbakian ezartzen den zerrenda argitaratutakoan, zerrenda horretan dagoen espezie bat lurralde nazionalera inportatzeko baimena eman dezake Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, baina soilik kasu honetan: espezie horrek ez dituela beteko 2. zenbakian deskribatutako egoerak egiaztatu badu eskatutako lehen inportazioan, operadoreak aurkeztutako arrisku-azterketaren ebaluazio bidez. Lehen eskaera horren arrisku-azterketa inportazioaren aldekoa bada, hurrengo inportazioak egiteko ez da horrelako baimenik eskatu behar izango, betiere behar beste justifikatutako arrazoi zientifiko berriek beste arrisku-azterketa bat egitea gomendatzen ez badute.

Arrisku-azterketa horiek bete dituzten espezieak zeintzuk diren eta azterketaren emaitza zein izan den jasotzen duen erregistroa eguneratuta eduki beharko du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak bere egoitza elektronikoa.

5. Debekatu egiten da basanimaliak nahita hiltzea, haiei kalte egitea, eragozteza edo aztoratzea, erabilitako metodoa edo ziklo biologikoa fasea edozein izanik ere.

Honako hauek sartzen dira debeku horretan: basanimaliak atxikitzea eta bizirik harrapatzea; haien habiak, kumeak edo arrautzak suntsitzea, haiei kalte egitea, biltzea eta atxikitzea —arrautzak, baita hutsik egonda ere—; eta ale biziak edo hilak edo haien gorpuzkiak edukitzea, garraiatzea, haiekin trafikatzeko edo merkataritza aritzea, kanpo-merkataritza ere barne dela.

56. eta 58. artikuluetan zehaztutako ezein kategoriatan sartzen ez diren animalia espezieei dagokienez, debeku horiek ez dira aplikatuko baldin eta erregulazio espezifikoa badute, bereziki, mendiei, ehizari, nekazaritzari, osasun-arloari eta osasun publikoari, arrantza kontinentalari eta itsas arrantzari buruzko legeetan; ez dira aplikatuko, halaber, Estatuko Administrazio Orokorrak nahiz autonomia-erkidegoek beren eskumenen esparruan araututako kasuetan, espezie horien kontserbazioarekin bateragarri izateko moduan ustia daitezkeen.

6. Kontserbazioarekin lotutako arrazoiengatik ezar litezkeen konpentsazio-ordainketak alde batera utzi gabe, oro har, administrazio publikoak ez dira erantzule izango basafaunako espezieek eragindako kalteen kasuan, betiere araudi sektorial espezifikoa xedatutako kasua ez bada.»

Hogeita hemeretzi. 55. artikulua gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«55. artikulua. *Desagertutako basaespezie autoktonoak berriro sartzeko.*

1. Administrazio publikoek basafauna eta basafloreko desagertutako espezie autoktonoak berriro sartzeko sustatuko dute; espezie horien artean egon daitezkeen Espainiako natura-ingurune orotatik aspaldi desagertu zirenak —betiere horri buruz idatzitako erreferentzia fidagarriak baldin badaude—, eta beste leku batzuetan edo gatibutza oraindik populazioa badutenak, bereziki espezie horiek berriro sartzeko Batasunaren intereseko habitat edo espezieen kontserbazio-egoera onuragarria leheneratzeko lagungarri izan badaiteke.

Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak Espainiako natura-ingurune orotatik desagertutako espezieen zerrenda aurkeztutako dio Ingurumenaren Konferentzia Sektorialari 2017ko abenduaren 31 baino lehen, kontsulta egin ostean Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluari eta, hala badagokio, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoaren

eta Zerrendaren batzorde zientifikoari. Zerrenda hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Espainiako lurraldean basaegoeran ez dauden espezieak berriro sartzeko proiektuak ez dira baimenduko, zerrenda horretan ez badaude.

2. Edozein administrazio publikok edo zuzenbide pribatuko edozein pertsona fisiko edo juridikok espezie bat zerrenda horretan sartzeko prozedura abiarazteko eska diezaioke Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioan natura-inguruneko eskumena duen zuzendaritza nagusiari; horretarako, eskaerarekin batera, espeziea autoktonoa dela eta desagertu baino lehen Espainiako lurraldean basaegoeran presentzia egonkorra izan zuela justifikatzen duen argumentazio zientifikoa aurkeztu beharko du.

3. Desagertutako basaespezie autoktonoak berriro sartzeko proiektuak administrazio publikoek edo zuzenbide pribatuko edozein pertsona fisiko edo juridikok gauzatu ahal izango ditu; proiektuaren aldeko txostena egin beharko du aldez aurretik Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak, eta nahitaezko baimena eman beharko du Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko administrazio orokorrak, bakoitzak bere eskumen-esparruan, betiere kontuan izanik gai horren gainean Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak onartutako jarraibide teknikoetan ezarritako baldintza teknikoak, eta egokiak izan ostean jendaurreko informazioa eta parte-hartzea, Ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, herritarrek parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen 2006ko uztailaren 18ko 27/2006 Legearen arabera.

4. Basaespezie autoktonoak berriro sartzeko —bai Espainiako natura-ingurunetik desagertuta daudenak eta 1. zenbakian ezartzen den zerrendan agertzen direnak, edo bai Espainian basaegoeran oraindik izan badirenak baina lurralde-eremu jakin batean desagertuta daudenak eta egun ez dauden beste autonomia-erkidego batera edo batzuetara zabal daitezkeenak—, berriro sartzeko proiektua prestatu beharko da; proiektu horrek Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordearen aldeko txostena jaso beharko du, eta, nolana ere, nahitaezko baimena eman beharko du Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko administrazio orokorrak, bakoitzak bere eskumen-esparruan,.

Desagertutako basaespezie autoktonoak Espainian basaegoeran oraindik izan badirenean baina lurralde-eremu jakin batean desagertuta daudenean eta egun ez dauden beste autonomia-erkidego batera edo batzuetara zabaldu ezin diren espezieak direnean, espezie horiek berriro sartzeko proiektuen berri Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeari soilik eman beharko zaio, baina, edonola ere, nahitaezko baimena eman beharko du Estatuko nahiz autonomia-erkidegoko administrazio orokorrak, bakoitzak bere eskumen-esparruan.

5. Desagertutako basaespezie autoktonoak berriro sartzeko saialdi esperimentalak egin ahal izango dira, espezie hori kontserbatzeko funtsezkoak izan ez arren, berriro sartutako espezie hori ekosisteman ongi integratzen dela egiaztatzeko eta eremu horretan dauden basaespezieekin eta giza jarduerekin bateragarria dela frogatzeko. Ez bada ongi integratzen, partzialki edo erabat atera edo kendu ahal izango dira natura-ingurunetik funtsezkoak ez diren populazio esperimentalak, behar beste dokumentatutako justifikazioa aurkeztu ondoren eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeari jakinarazi ostean.

6. Espezieak berriro sartzeko jarduerak legez kontrakoak diren kasuetan, beharrezkoak diren ekintzak bultzatuko dituzte Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenean eremuan, berriro sartzeko legez kanpoko jarduera horren aurreko egoerara itzultzeko, askatutako aleak eta haien ondorengoak desagerrarazita.»



Berrogei. 53. artikulua 56. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«56. artikulua. *Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrenda.*

1. Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrenda sortzen da; erregelamendu bidez arautuko da autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren, eta bertan bilduko dira espezie, subespezie eta populazio hauek: zientziaren, ekologiaren edo kulturaren aldetik balio handia dutelako, apartekoak edo bakanak direlako edo mehatxu-maila handia dutelako arreta eta babes berezia merezi dutenak eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmen eta zuzentarauen eranskinetan babestuzat jotzen direnak.

Estaturako zerrenda administratiboa izango da, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren mende egongo da.

2. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari dagokio taxon edo populazio bat zerrenda honetan sartzea, kategoriaz aldatzea edo zerrendatik ateratzea, hori egitea gomendatzen duen informazio teknikoa edo zientifikoa baldin badago:

- a) Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak proposatuta, autonomia-erkidegoen aldez aurreko ekimenez, edo
- b) ofizioz.

Europar Batasunaren arau edo erabakien eranskinetan edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnetan babestutako taxon edo populazioak —V. eranskinean zerrendatu direnak, esaterako—, ofizioz sartuko ditu zerrendan Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, betiere Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeari horren berri eman ostean.

Herritar edo erakunde orok eska dezake espezieak sartzeko, kategoriaz aldatzeko edo ateratzeko prozedurari ekitea, eskaerarekin batera proposatutako neurriaren argumentazio zientifikoa aurkeztuz gero.

3. Taxon edo populazio bat Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan sartzten bada, haren kontserbazio-egoera aldizka ebaluatuko da.

4. Autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, babes bereziko araubidean dauden basaespezieen zerrendak osatu ahal izango dituzte, eta espezie horiek zaintzeko edo babes-maila handiagoa ezartzeko beharrezko iritzitako debeku eta jardun osagarriak finkatu.»

Berrogeita bat. 54. artikulua 57. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«57. artikulua. *Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan sartutako espezieentzako debekuak eta kontserbazio-bermea.*

1. Espezie, subespezie edo populazio bat Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan sartzeak honako debeku orokor hauek eragiten ditu:

a) Landare, onddo edo algak badira, debekatuta dago naturan nahita bildu, moztu, ebaki, errotik atera edo suntsitzea.

b) Animaliak badira —larbak, kumeak edo arrautzak ere sartzten dira—, debekatuta dago haiek hiltzea, harrapatzea, jazartzea edo eragozteia xede duen jardunik egitea, bai eta haien habiak, gordelekuak eta ugaltzeko, negua emateko edo pausatzeko lekuak suntsitu edo hondatzea ere.

c) Bi kasuetan, debekatuta dago ale biziak edo hilak, haien propaguluak edo gorpuzkiak edukitzea, naturalizatzea, garraiatzea, saltzea, merkaturatu edo trukitzea, saltzeko edo trukatzeko asmoz eskaintzea, inportatzea edo esportatzea, baldin eta jarduera horiek, administrazioaren kontrolpean, kontserbaziorako mesedegarri ez badira, erregelamendu bidez zehaztutako kasuetan.

Debeku horiek espezie, subespezie edo populazio horien ziklo biologikoko fase guztietan aplikatuko dira.

2. Harrapaketak edo istripuzko heriotzak kontrolatzeko sistema bat ezarriko dute Estatuko Administrazio Orokorrek eta autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, eta, sistema horretan jasotako informazioan oinarrituta, beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte jardun horiek eragin negatibo garrantzitsurik ez izateko Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan biltzen diren espezieengan, eta etorkizunean minimizatzeako.»

Berrogeita bi. 55. artikulua 58. artikulua bihurtzen da.

Berrogeita hiru. 56. artikulua 59. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«59. artikulua. *Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan sartzearen ondorioak.*

1. Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoari dagokionez:

a) Taxon edo populazio bat «galzoriko» kategorian sartzen bada, berreskuratzeko plana egin beharko da, gehienez ere hiru urteko epean; plan horretan, lortu nahi diren helburuak betetzeko egokienak diren neurriak bilduko dira, eta, hala badagokio, inguru kritikoak hautatuko dira.

Inguru kritikoetan, eta berreskuratzeko planen arabera taxon edo populazio horiek berriro sartu edo hedatu daitezkeen ingurutzat jotzen diren inguruetan, kontserbazio-neurriak eta kudeaketa-tresnak finkatuko dira, inguru horietarako espezifikokoak edo beste plan batzuetan txertatutakoak, inguru horiek hautatzea eragin duten espezieek eragin ondorio negatiborik izan ez dezaten.

b) Taxon edo populazio bat «kaltebera» kategorian sartzen bada, kontserbazio-plan bat egin beharko da, gehienez ere bost urteko epean; plan horretan, lortu nahi diren helburuak betetzeko egokienak diren neurriak bilduko dira.

c) Kontserbazio-arazo berdinak edo antzeko esparru geografikoak partekatzen dituzten taxon edo populazioen kasuan, zenbait taxon edo populazio batera biltzen dituzten planak egin daitezke.

d) Naturagune babestuetan, Natura 2000 Sarean edo nazioarteko tresnek babestutako inguruetan soilik bizi diren espezie edo populazioen kasuan, edo proportzio handi batean inguru horietan bizi direnen kasuan, gune horiek planifikatzeko eta kudeatzeko figuretan txertatu ahal izango dira planak.

2. Autonomia-erkidegoek lehorreko espezie mehatxatuak kontserbatzeko eta berreskuratzeko planak egin eta onartuko dituzte.

3. Itsasoko espezieen kasuan, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak egin eta onartuko ditu berreskuratzeko eta kontserbatzeko planak, ministro-agindu baten bidez; plan horiek bat etorri beharko dute Itsas Ingurunea Babesteko 2010eko abenduaren 29ko 41/2010 Legean ezarritako babes-tresnekin; salbuespen izango dira migrazio handiak egiten ez dituzten espezie mehatxatuak, baldin eta haien habitatak dauden guneetan itsasoko ekosistemak jarraitutasun ekologikoa badauka babestu behar den lehorreko naturagunearekin, dagoen ebidentzia zientifiko onenaren bermearekin.

4. Indarrean dagoen osasun-araudia alde batera utzi gabe, Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan bildutako espezieetako ale biziak nazioartean lekualdatu edo mugitu ahal izateko, horretarako baimena eman behar du autonomia-erkidegoak alde aurretik, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioan eskuduna den zuzendaritza nagusiak txostena egin ostean. Estatuaren eskumeneko itsasoko espezieen kasuan, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak emango du baimen hori.»

Berrogeita lau. 57. artikulua 60. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«60. artikulua. *Espezie mehatxatuak kontserbatzeko eta biodibertsitatearen aurkako mehatxuei aurre egiteko estrategiak. Espezie baten egoera kritikoa.*

1. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak proposatuta eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluak alde aurretik txostena eginda, autonomia-erkidego batean baino gehiagotan dauden espezie mehatxatuak kontserbatzeko estrategiak onartuko ditu Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak, edo autonomia-erkidego batean baino gehiagotan dauden ekosistemen funtzionamendurako funtsezkoak diren espezieenak; halaber, biodibertsitaterako mehatxu nagusiei aurre egiteko estrategiak ere onartuko ditu, baina lehentasuna eman beharko zaie Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan bildutako espezie gehien eraginpean hartzen dituzten estratergiei, hala nola, substantzia toxikoak legez kanpo erabiltzea, elektrokuzioa eta linea elektrikoekin edo parke eolikoekin talka egitea, edo berunez intoxikatzea. Estrategia horiek edo, gutxienez, onartu izanaren aipamena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta eduki guztia argitaratu duen egoitza elektronikora jotzeko bidearen berri emango du.

Estrategia horiek Berreskuratzeke eta Kontserbatzeko Planen orientazio-esparrua eratuko dute, eta, gutxienez, espezieen egoeraren diagnostikoa, mehatxu nagusien diagnostikoa eta espezieak berreskuratzeke egin beharreko ekintzak zehaztu beharko dira.

2. Galzoriko espezie baten kontserbazio-egoeraren jarraipena edo ebaluazioa egin eta berehala galtzeko arriskua dagoela ondorioztatuko balitz, espezie hori egoera kritikoa dagoela deklaratu ahal izango du Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak alde aurretik txostena eginda. Deklarazio horren ondorioz, espezie horiek berreskuratzeke bideratutako obra eta proiektuak interes orokorreko obratzat hartuko dira, eta premiaz tramitatuko dira.

Kasu horietan, administrazio bakoitzak bere eskumenen esparruan egin beharreko jardunak koordinatuko ditu Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, lantalde batean, eta honako hauek osatuko dute lantalde hori, gutxienez: ministerio horretako ordezkari bat eta espeziearen banaketa-inguruko autonomia-erkidegoetako eta autonomia-estatutua duten hirietako ordezkari bana.

3. Itsasoko espezie mehatxatuak kontserbatzeko estrategiak onartuko ditu Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak, bai eta itsasoko biodibertsitatearen aurkako mehatxuei aurre egitekoak ere, eta lehentasuna eman beharko zaie Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoan bildutako espezie gehienei eragiten dieten mehatxuei, hala nola, arrantza-aparailu bidez istripuz harrapatzea, itsasontzien aurka talka egitea edo itsaspeko zarata.»

Berrogeita bost. 58. artikulua 61. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«61. artikulua. *Salbuespenak.*

1. Kapitulu honetan ezartzen diren debekuak eraginik gabe gera daitezke, autonomia-erkidegoak edo Estatuko Administrazio Orokorak alde aurretik administrazio-baimena emanaz gero, bakoitzak bere eskumenen esparruan, baldin eta ez badago beste konponbide egokirik, baina betiere kasuan kasuko populazioen kontserbazio-egoera onuragarria iraunarazteari kalterik egin gabe beren banaketa-inguru naturaletan, honako egoera hauetakoren bat betetzen denean:

a) Debekua aplikatzeak efektu kaltegarriak eragiten baditu pertsonen osasunean eta segurtasunean.

b) Laboreei, ganaduari, basoei, arrantzari eta uren kalitateari kalte garrantzitsuak eragitea prebenitzeko bada. Hegaztien kasuan izan ezik, albuespen

hori bera aplika daiteke jabetzaren beste forma batzuei kalte garrantzitsua eragiten bazaie.

c) Lehen mailako interes publikoko premiazko arrazoiak badaude, arrazoi sozioekonomikoak barne direla, eta ingurumenerako funtsezko garrantzia duten ondorio mesedegarriak eragiten badira. Salbuespen hori ez da aplikatuko hegaztien kasuan.

d) Beharrezkoa baldin bada ikerketarekin, heziketarekin, birpopulatzearekin edo berriro sartzearekin lotutako arrazoiengatik, edo beharrezkoa baldin bada xede horietarako itxian hazteko.

e) Hegaztien kasuan, aire-segurtasunarekin lotutako istripuak prebenitzeko bada.

f) Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan agertzen ez diren espezie jakin batzuk harrapatzea, atxikitzea edo zentzuzko bestelako ustiaketa baimentzeko bada, zorrotz kontrolatutako baldintzetan eta metodo selektiboan bitartez, kopuru txikitzen eta espeziearen kontserbazioa bermatuko duten muga zehatzekin.

g) Basaflora eta basafauna eta habitat naturalak babesteko bada.

2. 1. zenbakiko b) letraren azken tartekia eta 1. zenbakiko c) letra aplikatzen diren kasuetan, administrazio eskudunek zehaztu beharko dute zer neurriren bitartez bermatuko den biodibertsitatearen galera garbirik ez izateko printzipioa —2.c) artikuluan ezartzen dena—, dela natura kontserbatzeko bankuen figuraren bitartez, dela bestelako tresnak aplikatuta.

3. 1. zenbakiko d) letran ezartzen diren kasuetan, Esperimentaziorako eta beste helburu zientifiko batzuetarako erabiltzen diren animaliak babesteko oinarritzko arauak ezartzen dituen 2013ko otsailaren 1eko 53/2013 Errege Dekretuan ezarritakoa bete beharko da.

4. 1. zenbakiko f) letran ezartzen diren baldintzak betetzen diren salbuespenezko baimenen kasuan, beharrezkoak diren mekanismoak finkatuko ditu Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak, beste aukera bideragarriak ez dagoela eta harrapaketen gehieneko maila nazionala «kopuru txikiak» printzipioarekin bat datorrela bermatzeko datu zientifiko zorrotzetan oinarrituta. Halaber, eman ahal izango diren gehieneko harrapaketa-kuotak ezarriko dira, bai eta neurri horiek betetzen direla kontrolatzeko sistemak ere; neurri horiek harrapaketa, atxikitzea edo zentzuzko ustiaketa egiteko baimendutako aldia baino lehen eta aldi bertan bete behar dira, eta aldi hori igarotakoan ezarri beharreko kontrol gehigarriak ere egin beharko dira.

5. Aurreko zenbakietan aipatu den administrazio-baimenak publikoa eta arrazoitua izan beharko du, eta honako datu hauek zehaztu beharko ditu:

a) Zein diren ekintzaren helburua eta justifikazioa.

b) Zer espezieri eragiten dien.

c) Zer bitarteko, instalazio, sistema edo metodo erabiliko diren eta haien mugak, bai eta bitarteko horiek erabiltzeko arrazoiak eta langile kualifikatuak zeintzuk diren ere.

d) Arriskuaren mota eta baldintzak, denborari eta lekuari buruzko zirkunstantziak eta, hala badagokio, hartu ez diren bestelako konponbideak eta zer datu zientifiko erabili diren.

e) Zer kontrol-neurri aplikatuko diren.

6. Autonomia-erkidegoek Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari jakinaraziko diote zer baimen eman dituzten artikulua honetan ezartzen denari jarraikiz, gero Europako Batzordean eta dagozkion nazioarteko organismoetan jakinarazteko; kasu bakoitzean zer kontrol egin diren eta kontrol horiek zer emaitza eman duten ere adierazi behar da.

7. Aleak bizirik harrapatzen badira, harrapatutako aleengan lesioak edo heriotza eragiteko aukerarik txikiena duten aukerak hautatu behar dira harrapatzeko eta markatzeko metodoen artean.

8. Administrazio eskudunek basafaunako aleak markatzeko baimenak eman ahal izateko —batik bat, eraztunketa zientifikoaren bitartez—, eskatzaileak jarduera hori garatzeko gai dela frogatu beharko du; horretarako, Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak finkatutako jakintza komunaren gutxieneko oinarri bat baduela egiaztatu beharko du, markaketarekin lotutako erakunde eta sozietate zientifikoaren laguntzarekin.»

Berrogeita sei. 59. artikulua 62. artikulua bihurtzen da.

Berrogeita zazpi. 60. artikulua 63. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«63. artikulua. *Basaespezieen material biologikoa eta genetikoa ex situ kontserbatzea.*

1. Basaespezieen aniztasun genetikoa zaintzeko eta in situ kontserbazioko jardunak osatzeko, basaespezieen material genetikoa eta biologikoa bankuak sortzea sustatuko dute administrazio publikoak.

2. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak jarraibideak finkatuko ditu material genetikoa eta biologikoa bankuek eta administrazio publikoek modu koordinatuan lan egin dezaten bultzatzeko. Jarraibide horietan, besteak beste, honako alderdi hauek zehaztuko dira: bankuen sare-lana bultzatzeko mekanismoak, bildumei buruzko informazioa elkartrukatzeko prozedurak, ex situ kontserbatzeko lehentasunezkoak diren taxonak eta inplikaturako guztien artean koordinatzeko mekanismoak. Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak onartuko ditu jarraibide horiek, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluak aldeztatik txostena eginda. Estrategia horiek edo, gutxienez, onartu izanaren aipamena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta eduki guztia argitaratu duen egoitza elektronikora jotzeko bidearen berri emango du.

3. Besteak beste, Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendako taxonen material biologikoa eta genetikoa kontserbatzeari emango zaio lehentasuna, espezie endemikoei edo katalogatutakoei bereziki erreparatuta.

4. Autonomia-erkidegoek beren lurraldeko basaespezieen material biologikoa eta genetikoa bankuen erregistroa edukiko dute, eta eguneratuta edukiko dute kontserbatzen dituzten bildumei buruzko informazioa. Horretarako, bankuek informazioa eman beharko diote autonomia-erkidegoko administrazio eskudunari, gutxienez urtean behin.

5. Basaespezieen Material Biologikoa eta Genetikoa Bankuen Espainiako Inbentarioa sortzen da, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren mende; informazioa emateko xedea izango du, eta autonomia-erkidegoek iraultzen dituzten datuak bilduko ditu.»

Berrogeita zortzi. 61. artikulua 64. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«64. artikulua. *Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa.*

1. Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoa sortzen da; Katalogoaren egitura eta funtzionamendua erregelamendu bidez arautuko da, eta espezie eta subespezie exotiko inbaditzaileak sartuko dira bertan, hori egitea gomendatzen duen informazio tekniko edo zientifikoa dagoenean, baldin eta mehatxu larria badira espezie autoktonoentzat, habitat edo ekosistemarentzat, agronomiarentzat edo natura-ondarearen erabilerarekin lotutako baliabide ekonomikoentzat.

Katalogoa Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren mende egongo da, eta Estaturako katalogo administratiboa izango da.

2. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak sartuko ditu espezieak Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak proposatuta, eta autonomia-erkidegoen edo ministerioaren beraren alde aurreko ekimenez, hori egitea gomendatzen duen informazio teknikoa edo zientifikoa baldin badago.

Herritar edo erakunde batek ere eska dezake espezie edo subespezie bat katalogoan sartzeko edo katalogotik ateratzeko prozedurari ekitea, eskaerarekin batera proposatutako neurriaren argumentazio zientifikoa aurkeztuz gero.

3. Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartzekak honako debeku orokor hau dakar: ale biziak, haien gorpuzkiak edo biziraun dezaketen edo ugal daitezkeen propaguluak edukitzeko, garraiatzeko, haiekin trafikatzeko eta merkataritza aritzeko debekua, kanpo-merkataritza ere barne dela. Debeku hori eraginik gabe gera daiteke, administrazio eskudunak alde aurretik administrazio-baimena emanaz gero, beharrezkoa baldin bada ikerketarekin edo pertsonen osasun nahiz segurtasunarekin lotutako arrazoiengatik, edo kontrola edo desagerraraztea xede izanik, betiere hori lortzeko onartzen diren estrategia, plan eta kanpainen esparruan.

4. Administrazio eskudunek potentzial inbaditzailea duten espezie exotikoen jarraipena egingo dute, bereziki baldin eta beste herrialde edo eskualde batzuetan inbaditzaile direla egiaztatuta geratu baldin bada; hartara, behar izanez gero, espezie hori Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan sartzekak proposatu ahal izango dute.

5. Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoko espezieak kudeatzeko, kontrolatzeko eta agian desagerrarazteko jarraibideak bilduko dituzten estrategiak prestatuko dituzte Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak eta autonomia-erkidegoek, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordearen esparruan, eta lehentasuna emango zaie fauna, flora edo habitat autoktono mehatxatuak kontserbatzeko arrisku handiena dakarten espezieei, bereziki erreparatuz uharteetako biodibertsitateari. Ingurumenaren Konferentzia Sektorialak onartuko ditu estrategia orientagarri horiek, Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordeak proposatuta eta Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Kontseiluak alde aurretik txostena eginda. Estrategia horiek edo, gutxienez, onartu izanaren aipamena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira, eta eduki guztia argitaratu duen egoitza elektronikora jotzeko bidearen berri emango du.

6. Autonomia-erkidegoek, bakoitzak bere lurralde-eremuan, espezie exotiko inbaditzaileen katalogoak sortu ahal izango dituzte, eta espezie horiek desagerrarazteko beharrezko irizitako debekuak eta jardun osagarriak erabakiko dituzte.

7. Itsasoko espezie exotiko inbaditzaileen kasuan, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak onartuko ditu estrategiak.»

Berrogeita bederatzia. 64 bis artikulua gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«64 bis artikulua. *Batasunean kezka sortzen duten espezie exotiko inbaditzaileak.*

1. Espezie exotiko inbaditzaileak sartu eta hedatzea prebenitu eta kudeatzearen gaineko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko urriaren 22ko 1143/2014 zenbakidun EBko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera kudeatuko dira Batasunean kezka sortzen duten espezie exotiko inbaditzaileak.

2. Erregelamendu horretan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, lege honen VI. kapituluaren ezarritako diren zehapenak ezarriko dira.»

Berrogeita hamar. 62.etik 65.era bitarteko artikulua 65.etik 68.era bitarteko artikulua bihurtzen dira, hurrenez hurren.

Berrogeita hamaika. 66. artikulua 69. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«69. artikulua. *Espainiako Biosfera Erreserben Sarearen helburuak.*

1. Espainiako Biosfera Erreserben Sareak honako helburu hauek ditu:

a) «Laborategi naturalen» multzo zehaztu eta konektatu edukitzea; giza komunitateen eta komunitate horiek ibiltzen diren lurraldeen arteko harremanen jarraipena egiteko estazio konparagarriak dira, eta bereziki erreparatzen zaie elkarri egokitzeko prozesuei eta sortzen diren aldaketei.

b) Etengabeko konparazio eraginkorra egingo dela eta horrela sortutako informazioa aplikatu beharreko agertokietara eramango dela bermatzea.

c) Lurraldea antolatzeke eta kudeatzeko eredu jasangarriak orokor daitezen sustatzea.

2. Espainiako MAB Batzordea kide anitzeko aholkularitzako organo zientifikoa da, eta Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari atxikita dago; Batzordearen osaera, edukiak eta eginkizunak erregelamendu bidez zehaztuko dira. Batzordeak beteko du Estatuari dagokion koordinazio-ahalmena; horretarako, ebaluazioa zorrotasun teknikoaren, objektibotasunaren eta konparagarritasunaren bermeekin egiteko beharrezkoak diren bitartekoak eta antolaketa-egitura eskainiko dizkie biosfera-erreserben arloan eskudunak diren organoei, betiere UNESCOk finkatutako programaren estandarrak bete ahal izateko. Halaber, oreka egokia bermatu beharko du, alde batetik, lurralde-autonomien errespetuaren eta, bestetik, autonomia horien ondorioz sistemaren beraren batasuna aintzat hartuko ez duten banaketak saihesteko premiaren artean, betiere 70.c) artikuluan ezartzen diren baldintzetan biosferaren erreserba bakoitzaren kudeaketa-organuari berari dagozkion eginkizunak alde batera utzi gabe.

MAB Batzordeak egingo ditu biosfera-erreserba bakoitzaren nahitaezko ebaluazioak; finkatutako helburu eta eskakizunekin bat ote datorren balioztatuko du, eta, hala badagokio, kontraesanean dauden alderdiak zuzentzeko proposamenak egingo ditu.»

Berrogeita hamabi. 67. artikulua 70. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«70. artikulua. *Biosfera-erreserben ezaugarriak.*

Aplikatzekoak diren UNESCOren jarraibide eta arauak bete beharko dituzte biosfera-erreserbek, biosfera-erreserba bihurtu eta biosfera-erreserba izaten jarraitu ahal izateko; halaber, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

a) Espazioaren antolamendua, honela osatuta:

1.a Erreserbaren nukleo izango den edo diren eremu bat edo batzuk; eremu horiek naturagune babestu edo Natura 2000 Sareko BGL, KBE, edo hegaztientzako BBE izango dira, eta dibertsitate biologikoa eta ekosistemak zaintzeko oinarritzko helburuak izango dituzte. Halaber, antolatzeke, erabiltzeko eta kudeatzeko plangintza egokia izan beharko dute, helburu horiek bultzatzeko.

2.a Nukleo-eremuak babesteko eremu bat edo batzuk, nukleo-eremuaren oinarritzko kontserbazioa eta babes-eremuaren garapen jasangarria uztartu ahal izateko antolaketako, erabilerako eta kudeaketako plangintza baten bitartez; plangintza hori espezifikoa izan daiteke, edo kasuan kasuko nukleo-eremuaren plangintzan txertatuta egon daiteke.

3.a Erreserbaren eta gainerako espazioaren artean trantsizioko eremu bat edo batzuk, biztanleriaren ongizatea hobetzeko garapen sozioekonomikoa sustatzeko, erreserbaren baliabide espezifikoak modu jasangarrian baliatuta eta erreserbaren eta Pertsona eta Biosfera programaren helburuak errespetatuta.

b) Aipatutako helburuetara bideratutako bilakaera-estrategia espezifikoak, dagokion jarduketa-programa eta Espainiako MAB Batzordeak ezarritakoaren araberako adierazle-sistema bat ere badituztela, MAB programaren helburuen betetze-maila balioztatu ahal izateko.

c) Estrategia, ekintza-ildo eta programen garapena modu arduratsuan kudeatuko duen organoa, eta parte-hartze publikoko beste organo bat, erreserbaren gizarte-eragile guztien ordezkariekin.»

Berrogeita hamahiru. 68. artikulua 71. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«71. artikulua. *Basataxonen baliabide genetikoak eskuratzea eta erabiltzea, eta etekinak banatzea.*

1. Basataxonen baliabide genetikoak eskuratu eta baliabide horiek erabiltzearen ondoriozko etekinak banatzeko garaian, honako hauek xedatutakoari jarraitu behar zaio: Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmena, baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eta haiek erabiltzeak dakartzen onuretan parte-hartze bidezkoa eta ekitatezkoa izatearen gaineko Nagoyako Protokoloa eta hura garatzen duten tresnak eta, hala badagokio, FAO Elikadura eta Nekazaritzarako Munduko Erakundearen Elikadurarako eta Nekazaritzarako Baliabide Fitogenetikoaren gaineko Nazioarteko Tratatuak.

2. Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren 15. artikuluen bitartez eta Nagoyako Protokoloaren 6. artikuluen bitartez Estatuari esleitzen zaizkien ahalak baliatuta, errege-dekretu baten bidez xedatuko da Espainiako baliabide genetiko horiek eskuratu ahal izateko aurretiazko baimen informatua eskuratu beharko dela eta elkarren artean adostutako baldintzak bete. Aurretiazko baimen informatua eman dela eta elkarren artean adostutako baldintzak finkatu direla frogatzeko, baliabide horiek eskuratzeko baimena emango da. Errege Dekretuan, baliabide genetiko horiek eskuratzeko baimen sinplifikatuaren tramitea ezarriko da, baliabideak merkataritzarekin zerikusirik ez duten ikerketa-xedeetarako erabiliko direnerako.

3. Aurretiazko baimen informatua emateko, elkarren artean adostutako baldintzak finkatzeko eta, beraz, Espainiako baliabide genetikoak eskuratzeko baimena emateko eskumena autonomia-erkidegoei dagokie; hain zuzen ere, baliabide genetikoaren jatorrizko lurraldea biltzen duen autonomia-erkidegoari, edo ex situ kontserbatzeko erakundeak dauden lurraldeari dagokion autonomia-erkidegoari, betiere Espainiako jatorria badute eta hurrengo c) letran ezartzen den kasuan izan ezik.

Eskumena Estatu Administrazio Orokorrena izango da, honako baliabide hauen kasuan:

a) Itsasoko baliabide genetikoak, lege honen 6. artikuluan eta lehen xedapen gehigarriaren d) eta e) letretan xedatutakoari jarraikiz.

b) Estatu titular duten jabari publiko ondasunetan dauden baliabide genetikoak.

c) Estatu titular duten edo Estatuarenak diren ex situ kontserbazioko erakundeetan dauden baliabide genetikoak.

Jatorriz Espainiakoak izan ez eta Espainiako ex situ kontserbazioko erakundeetan dauden edo Espainiako lurraldean dauden baliabide genetikoak emateko, 72. artikuluan xedatutakoa beteko da.

d) Lehorreko basataxonetatik datozen baliabide genetikoak, taxon horien banaketa-inguruak autonomia-erkidego bat baino gehiago biltzen baldin badu.

4. Artikulu honetan ezartzen den erregulaziotik kanpo geratzen da xede taxonomikoetarako soilik eskuratzea baliabideak; kasu horietan, erabat debekatzen da baliabideak hirugarrenei transmititzea, xede berberetarako ez bada.

Erregulaziotik kanpo geratzen dira, halaber, honako hauek ere:



a) Nekazaritzarako eta elikadurarako baliabide fitogenetikoak; Haztegiko Hazi eta Landareen eta Baliabide Fitogenetikoaren 2006ko uztailaren 26ko 30/2006 Legearen bidez arautzen dira.

b) Estatuko Itsas Arrantzaren 2001eko martxoaren 26ko 3/2001 Legean araututako arrantza-baliabideak.

c) Nekazaritzarako eta elikadurarako baliabide zoogenetikoak; araudi espezifikoen arabera arautuko dira.

5. Nagoyako Protokoloan xedatutakoari jarraikiz, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioa puntu fokal nazionala izango da baliabide genetikoak eskuratzeari eta baliabide horien erabileraren ondoriozko etekinetan bidezko parte-hartze zuzena izateari dagokienez. Baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eskumena duten agintaritzak izendatuko dituzte Estatuko Administrazio Orokorrak eta autonomia-erkidegoek, artikulu honetan ezartzen diren eskumenak baliatuta, eta horren berri eman beharko diote Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioari, gaiari buruzko puntu fokal nazionala den aldetik. Puntu fokal nazionala arduratuko da Espainian baliabide genetikoak eskuratzeko interesa dutenei informazioa emateaz: zer baldintza bete behar diren baliabide genetikoak eskuratzeko eta zein agintaritza eskudunekin jarri beharko diren harremanetan.

6. Baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eskumena duten agintaritzek baimenen berri emango diote puntu fokal nazionalari; baimen horien edukiak bat etorri beharko du Nagoyako Protokoloan eta hura garatzeko mekanismoetan xedatutakoarekin. Puntu fokal nazionalak Nagoyako Protokoloan ezarritako Informazioa Trukatze Zentrorara eramango ditu baimenak, eta, une horretan, nazioartean aintzakotzat hartutako betetze-ziurtagiri bihurtuko dira.

Errege-dekretu baten bidez, ereduak ere finkatu egingo dira, eta berdinak izango dira lurralde nazional osoan.

Baliabide genetikoetan oinarrituta patenteak lortu nahi izanez gero, patenteen arloan indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera kudeatuko da patentearen eskaera. Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak hartuko du parte legeria hori erregelamendu bidez garatzen.

Merkataritzarekin zerikusirik ez duten xedeetarako lortutako baliabide genetikoekin egindako ikerketa baten ondorioz merkataritza-erabilerarik sortuko balitz, interesdunak beste baimen bat eskatu beharko dio agintaritza eskudunari.

7. Baliabide genetikoak erabiltzearen ondoriozko etekinak, batik bat, biodibertsitatea kontserbatzera eta osagaiak modu jasangarrian erabiltzera bideratuko dira. Estatuko Administrazio Orokorrak baimenduta eskuratzeko baliabide genetikoaren kasuan, erabileraren ondoriozko etekinak Natura Ondarerako eta Biodibertsitatearentako Funtsaren bitartez bideratuko dira.

8. Baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eskumena duten agintaritzak arduratuko dira haiek baimenduta eskuratu diren baliabide genetikoak behar bezala erabiltzen direla zaintzeaz. Baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eskumena duten agintaritzek arau-hausterik hauteman ez gero Espainiako lurraldetik kanpo dauden erabiltzaileek beren ardurapeko baliabide genetikoak eskuratzeko edo erabiltzeko prozesuan, agintaritza horiek puntu fokal nazionalari emango diote arau-hauste horren berri, Espainiako baliabide genetikoaren usteko erabilera irregular hori gertatu den herrialdearekin egin beharreko kontsultak egin ditzan.

9. Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Estatuko Batzordearen barruan batzorde espezializatu bat sortzea ezarriko da errege-dekretu baten bidez; batzorde horretan, autonomia-erkidegoen ordezkariak ez ezik, ministerioetako departamentuen ordezkariak ere bilduko dira —artikulu honetan, 72. artikuluan eta 74. artikuluan bigarren, hirugarren eta laugarren zenbakietan aipatzen diren gaien eraginpean daudenak, hain zuzen—.

10. Artikulu honetan xedatutakoa gorabehera, autonomia-erkidegoek, beren lurralde-eremuan, baliabide genetikoak in situ eskuratzeko baldintzak ezarri ahal izango dituzte, betiere baliabide horiek biltzeko babes berezia beharrezkoa baldin

bada baliabideen kontserbazioa eta erabilera jasangarria zaintzeko; Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak gai horretarako puntu fokal nazional izendatutako organoari eman beharko diote baldintza horien berri autonomia-erkidegoek, hark Europar Batasunean gaiari dagozkion eskumenak dituzten lankidetzako-organoei eta Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmeneko organoetan jakinaraz dezan.»

Berrogeita hamalau. 72. artikulua gehitzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«72. artikulua. *Baliabide genetikoaren erabilera kontrolatzea.*

1. Baliabide genetikoaren erabilerearen jarraipena egiteko eta betetze-mailaren neurriak finkatzeko, Espainian, 511/2014 zenbakidun EBko Erregelamenduan xedatutakoa beteko da; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko erregelamendu hori Batasunean erabiltzaileek Nagoyako Protokoloa betetzeko neurrien ingurukoa da, eta Nagoyako Protokoloa baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eta haiek erabiltzeak dakartzen onuretan parte-hartze bidezkoa eta ekitatezkoa izatearen gainekoa da. 71. eta 72. artikulua garatzeko errege-dekretuan izendatuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 511/2014 Erregelamendu hori aplikatzeaz arduratuko diren agintaritzak.

2. Erregelamendu horretan ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, lege honen VI. tituluan ezartzen diren arau-hauste eta zehapenak ezarriko dira.»

Berrogeita hamabost. 69. artikulua 73. artikulua bihurtzen da.

Berrogeita hamasei. 70. artikulua 74. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«74. artikulua. *Natura Ondarea eta Biodibertsitatea kontserbatzeko jakintza tradizionalak sustatzea.*

1. Dibertsitate Biologikoari buruzko Hitzarmenaren eta Jabego Intelektualaren Munduko Erakundearen arau, ebazpen eta printzipioei jarraikiz, administrazio publikoek:

a) Natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko interesgarriak diren jakintzak eta ohiturazko jardunbideak zaindu, iraunarazi eta sustatuko dituzte.

b) Jakintza eta jardunbide horien ondoriozko onurak ekitatiboki partekatzea bultzatuko dute.

c) Biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko esanguratsuak diren jakintza tradizionalen inbentarioak egitea bultzatuko dute, etnobotanikoei bereziki erreparatuta. Inbentario horiek Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen inguruko Jakintza Tradizionalen Espainiako Inbentarioan sartuko dira.

2. Hirugarren herrialde batetik datozen baliabide genetikoekin lotutako jakintza tradizionalak Espainian erabiltzen direnean, baliabide genetikoekin lotutako jakintza tradizionala eskuratzeari buruz herrialde horretako araudi nazionalean xedatutakoa bete beharko da, betiere Nagoyako Protokoloari jarraikiz.

3. Nagoyako Protokoloa sinatu duen hirugarren herrialde batetik datozen baliabide genetikoekin lotutako jakintza tradizionalen erabilerearen jarraipena egiteko eta betetze-maila neurtzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 511/2014 Erregelamendua hartuko da aintzat.

4. Erregelamendu horretan ezarritako betebeharrak ez badira betetzen, lege honen VI. tituluan ezartzen diren arau-hauste eta zehapenak ezarriko dira.

5. Biodibertsitatearen inguruko Jakintza Tradizionalen Espainiako Inbentarioan bildutako jakintza tradizionalak babesteari dagokionez, eta jabetza intelektual eta

industrialaren eskubideekin duten loturari dagokionez, nazioarteko legerian xedatutakoa bete beharko da, eta, hala badagokio, patenteen arloan indarrean dagoen legerian xedatutakoa.»

Berrogeita hamazazpi. 71.etik 73.era bitarteko artikulua 75.etik 77.era bitarteko artikulua bihurtzen dira, hurrenez hurren.

Berrogeita hemezortzi. 74. artikulua 78. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«78. artikulua. *Natura Ondarerako eta Biodibertsitaterako Funtza.*

1. Natura Ondarerako eta Biodibertsitaterako Funtza sortzen da, lege honen helburuak betetzen laguntzera bideratutako neurriak abiarazteko helburuarekin; era berean, basoen kudeaketa jasangarria, baso-suteen prebentzio estrategikoa eta basogune nahiz naturaguneen babesa ere baditu helburu, betiere Estatuko Administrazio Orokorraren finantzaketa jasotzen badute.

Funtz horrek urte anitzeko ekintzetarako finantzaketa eman dezake, eta lurralde-kohesioa ziurtatzeko kofinantzaketarako tresna izango da. Estatuko Aurrekontu Orokorretan esleitutako partidetatik jasoko du dirua funtsak, eta xede beretara bideratutako erkidegoko finantza-tresnek kofinantzatzen dituzten diru-kopuruak ere jasoko ditu; halaber, etorkizunean ezar daitezkeen bestelako finantzaketa-iturriak ere izan ditzake.

2. Funtzaren helburuak honako hauek dira:

a) Natura-ondarearen, biodibertsitatearen eta geodibertsitatearen inbertsioa, kudeaketa eta antolamendua sustatzea, pizgarri egokien bitartez, eta, bereziki, plan, tresna eta proiektuak sustatzea naturagune babestuak, Natura 2000 Sarea eta nazioarteko tresnek babestutako inguruak kudeatzeko, natura-baliabideak antolatzeke eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoko espezieak in situ eta ex situ kontserbatzeko.

b) Beste ekintza batzuk garatzea eta tresna gehigarriak sortzea, naturagune babestuen, Natura 2000 Sarearen eta nazioarteko tresnek babestutako inguruen defentsarako eta jasangarritasunerako lagungarri direnak; natura-baliabideak antolatzearekin eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoko espezieen kontserbazioarekin lotutakoak ere izan daitezke.

c) Natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko eredu jasangarriak bideragarri egitea, batik bat naturagune babestuetan, Natura 2000 Sarean eta nazioarteko tresnek babestutako inguruetan.

d) Desagertzeko arriskuan dauden habitatak eta katalogatutako espezieak kontserbatzeko estrategia eta planetan bildutako neurriak betearazten laguntzea.

e) Basoetako inbertsioa, kudeaketa eta antolamendua sustatzea pizgarri egokien bitartez eta, bereziki, mendiak antolatzeke proiektuak edo plan dasokratikoak lantzea.

f) Basogintzaren eta ehiza- nahiz arrantza-jardueren arloetako kudeaketa-eredu jasangarriak bideragarri egiteko finantza-mekanismoak eratzea.

g) Naturagune babestuekin eta Natura 2000 Sarearekin lotutako eragile sozial eta ekonomikoek eta basoguneek betetzen dituzten eginkizunak sustatzea — ekologiarekin, gizartearekin eta kulturarekin lotutako eginkizunak — eta horiei balioa ematea, bai eta natura-baliabideak kontserbatzeko zerbitzuei eta ingurumen-zerbitzuei laguntzea ere.

h) Baso-suteak prebenitzeko ekintzetan laguntzea.

i) Natura-ondarerako eta biodibertsitaterako bestelako inpaktu larriak ezabatzeko ekintzetan laguntzea eta, bereziki, habitaten zatikatzea eta espezie exotiko inbaditzaileak kontrolatzeko eta desagerrarazteko ekintzetan.

j) Basoen jabeak taldeka daitezzen sustatzea, baso-kudeaketa jasangarria bultzatutako duten basogintza-ustiategiak batera garatzeko.

k) Basogintzako ziurtagiria lortzeari bultzada ematea.

l) Natura-ondarea, biodibertsitatea eta geodibertsitatea kontserbatzarekin lotutako ikerketa aplikatuko, frogapeneko eta esperimentazioko ekintza espezifikoak finantzatzea.

m) Lurralde-jagoletzarekin lotutako ekintza espezifikoak finantzatzea.

n) Naturagune babestuetatik, Natura 2000 Saretik eta ziurtagiria duten basoetatik datozen produktuen erabilera eta produktu horien ekoizpena eta merkaturatze-prozesua indartzea.

o) Natura-ondarea eta biodibertsitatea kontserbatzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko interesgarriak diren jakintzak eta ohiturazko jardunbideak zaindu, iraunarazi eta susta daitezzen bultzatzea, besteak beste, jakintza eta jardunbide horiek aplikatzen dituzten eragileei pizgarriak emanda.

p) Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen defentsan eta jasangarritasunean lagungarri izango diren bestelako ekintzak eta helburu osagarriak garatzea.

q) Ekoizpen ekologikoa sustatzea naturagune babestuetan, Natura 2000 Sarean eta biosfera-erreserbetan sartzen diren eremuetan.

r) Higadura eta desertifikazioa prebenitzeko ekintza espezifikoak finantzatzea, ahal dela naturagune babestuetan, Natura 2000 Sarean eta biosfera-erreserbetan.

s) Natura-ondarearen eta biodibertsitatearen Espainiako inbentarioa garatzea eta eguneratzea xede duten ikerketa eta prospekzioak bultzatzea.

t) Espainiako natura-ondarea kontserbatzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko jakintza eta gizarte-sentsibilizazioa ekarriko duten dibulgazio-ekintzak indartzea.

3. Estatuko Administrazio Orokorrek eta autonomia-erkidegoek gauzatuko dituzte Funtsaren kargura finantzatzen diren ekintzak, bakoitzak bere eskumenen esparruan; autonomia-erkidegoen kasuan, hitzarmen bidez zehaztuko da zer neurri kofinantzatuko diren.

4. Autonomia-erkidegoei kontsulta egin ostean, Natura Ondarerako Funtsaren funtzionamendua errege-dekretu baten bidez arautuko da; autonomia-erkidegoen parte-hartzea bermatu beharko da, bereziki haien eskumenak eraginpean hartzen dituzten Funtsaren helburuei dagokienez.

5. Administrazioek subsidiarotasun-printzipioari jarraikiz egingo dute lana hasieratik, eta proposatutako neurrien etekinetan eta ekintzetan parte hartzeko aukera emango zaie Funtsak sustatutako neurrien onuradun izango diren lurraldeetako biztanle eta jabeei.»

Berrogeita hemeretzi. 75. artikulua 79. artikulua bihurtzen da.

Hirurogei. 76. artikulua 80. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«80. artikulua. *Arau-haustea tipifikatzea eta sailkatzea.*

1. Lege honen ondorioetarako, eta autonomia-erkidegoko legerian horri buruz xedatzen dena alde batera utzi gabe, administrazioeko arau-haustetat hartuko dira honako hauek:

a) Produktu kimikoak edo substantzia biologikoak erabiltzea, isurketa likido zein solidoak egitea, hondakinak isurtzea, bai eta betelanetarako elementu solidoak jalkitzea ere, ekosistemen baldintzak asaldatzen badituzte eta haietan dauden balioei kalte egin. Era berean, arau-haustetat hartuko dira goian aipatu ditugun egintzak, nahiz eta kalterik eragin ez, baldin eta ekosistemen baldintzak asaldatzeko arrisku handia egon bada.

b) Galzoriko espezieetat katalogatutako flora eta faunako espezieak, haien propaguluak edo gorpuzkiak baimenik gabe suntsitzea, hiltzea, hondatzea, biltzea, merkaturatu edo trukitzea, harrapatzea eta saltzeko, trukatzeko edo naturalizatzeko asmoz eskaintzea.

c) Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoan «desagertzeko arriskuan» kategorian sartzen diren habitatak suntsitzea edo hondatzea.

d) Galzoriko espezieen habitata suntsitzea, bereziki animaliek ugaltzeko, negua emateko, pausatzeko, ibiltzeko edo elikatzeko erabiltzen dituzten lekuak.

e) Desagertzeko Arriskuan dauden Habitaten Espainiako Katalogoan «desagertzeko arriskuan» kategorian sartzen diren habitaten osagaiak suntsitzea edo nabarmen hondatzea.

f) Administrazioak dagokion baimenik eman gabe, Espezie Exotiko Inbaditzaileen Espainiako Katalogoan agertzen diren espezieak edukitzea, garraiatzea, haiekin trafikatzeta edo merkataritzan aritzea; espezie autoktonoekin lehiari egon daitekeen espezie bat lurralde nazionalean lehen aldiz sartzea edo inportatzea, edo horrelako espezie bat ingurunean lehen aldiz askatzea.

g) Batasunean kezka sortzen duten espezie exotiko inbaditzaileak sartzea, edukitzea, haztea, garraiatzea, merkaturatzea, erabiltzea, trukatzeta, ugaltzea, landatzea edo natura-ingurunean askatzea, administrazioaren baimena izan gabe.

h) Naturagune babestu baten baldintzak edo naturagune babestu bateko produktuen baldintzak asaldatzea, okupazioaren bitartez, luberrituta, moztuta, errotik aterata edo bestelako ekintzen bitartez.

i) Publizitate-kartelak jartzea edo paisaia-inpaktu nabarmenak eragitea naturagune babestuetan.

j) Batasunaren intereseko lehentasunezko habitaten osagaiak hondatzea edo nabarmen asaldatzea, edo osagaiak suntsitzea, edo Batasunaren intereseko habitaten gainerako osagaiak nabarmen hondatzea.

k) Kalteberatzen katalogatutako flora eta faunako espezieak, haien propaguluak edo gorpuzkiak baimenik gabe suntsitzea, hiltzea, hondatzea, biltzea, edukitzea, merkaturatu edo trukatzeta, harrapatzea eta saltzeko, trukatzeko edo naturalizatzeko asmoz eskaintzea.

l) Espezie kalteberen habitata suntsitzea, bereziki animaliek ugaltzeko, negua emateko, pausatzeko, ibiltzeko edo elikatzeko erabiltzen dituzten lekuak, eta basaflora eta basafaunarentzako babes bereziko eremuak.

m) Basafaunako espezieak harrapatzea eta jazartzea justifikaziorik gabe, eta flora espezieak errotik atera eta mozteko, mendiei, ehizari eta arrantza kontinentalari buruzko legeriaren erregulazio espezifikaren arabera administrazioaren baimena behar den kasuetan, baldin eta baimen hori lortu ez bada.

n) Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan sartuta bai baina katalogatu gabe dauden flora eta faunako espezieak, haien propaguluak edo gorpuzkiak baimenik gabe suntsitzea, hiltzea, hondatzea, biltzea, edukitzea, merkaturatu edo trukatzeta, harrapatzea eta saltzeko, trukatzeko edo naturalizatzeko asmoz eskaintzea.

o) Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrendan sartuta bai baina katalogatu gabe dauden espezieen habitata suntsitzea; bereziki, animaliek ugaltzeko, negua emateko, pausatzeko, ibiltzeko edo elikatzeko erabiltzen dituzten lekuak.

p) Hegazti-espezieak nahita asaldatzea, hiltzea, harrapatzea eta atxikitzea ugaltze- eta hazkuntza-garaian, bai eta, espezie migratzaileen kasuan, umatzeko lekuetara itzultzeko bidean ere.

q) Batasunaren intereseko habitatak nabarmen asaldatzea.

r) Ehizan edo kirol-tiroan beruna daukan munizioa edukitzea eta erabiltzea, jarduera horiek hezeguneetan egiten direnean: Nazioarteko Garrantziko Hezeguneei buruzko Hitzarmeneko Zerrendan dauden hezeguneetan, Natura 2000 Sarean dauden hezeguneetan eta naturagune babestuetan dauden hezeguneetan.

s) Naturagune babestuen eta Natura 2000 Sareko gune babestuen erregulazio-arauetan eta kudeaketa-tresnetan ezarritako betebeharrak eta debekuak ez betetzea —planak barne hartuta—.

t) Tanga-ontziek etengabe ainguratuta egonik erregaia ematea edo metatzea naturagune babestuetako eta Natura 2000 Sareko gune babestuetako uretan, erregai hori hartzea, eta aipaturiko tanga-ontziak erregaiz hornitzea.

Ulertuko da etengabe ainguratuta dagoela, nahiz eta ontzia noizean behin aldi txiki batean egon ez, edo haren ordeztasun enpresa, armadore edo talde bereko beste tanga-ontzi bat jarri, baldin eta ainguratzearen helburua erregaia emateko biltegi izatea bada.

u) Jatorria Espainian duten baliabide genetikoak eskuratzea 71. artikuluan aipatutako prozedurak bete gabe.

v) Baliabide genetikoak edo baliabide genetikoei lotutako jakintza tradizionalak erabiltzean, ez betetzea 511/2014 Erregelamenduan ezarritako betebeharrak —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 511/2014 zenbakidun EBko Erregelamendua Batasunean erabiltzaileek Nagoyako Protokoloa betetzeko neurrien ingurukoa da, eta Protokolo hori baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eta haiek erabiltzeak dakartzan onuretan parte-hartze bidezkoa eta ekitatezkoa izatearen gainekoa da—. Lege honen 72. eta 74. artikuluetan aipatzen dira betebeharrak horiek.

w) Fauna eta flora autoktonoko espezieak berriro sartzeari, betiere 55. artikuluan xedatutakoa bete gabe.

x) Lege honetan ezartzen diren gainerako baldintza, betebeharrak edo debekuak ez betetzea.

2. Aurreko paragrafoan jasotako arau-haustea honela kalifikatuko dira:

a) Oso astuntzat joko dira a), b), c), d), e), f), g) eta t) letretan jasota daudenak, kalteen balioa 100.000 eurotik gorakoa bada; b), k), n), t), u) eta v) letretan jasota daudenak, lortutako etekinak 100.000 eurotik gorakoak badira; gainerako letretan jasotako guztiak ere bai, kalteen balioa 200.000 eurotik gorakoa bada; bai eta berrerortzea ere, baldin eta arau-hauste astun bat egiten bada, aurretik egin eta zehatu zen beste arau-hauste baten mota berekoa, hura jakinarazi ondoko bi urteko epean, eta zehatzeko ebazpena irmoa bada administrazio-bidean.

b) Astuntzat joko dira a), b), c), d), e), f), g), h), i), j), k), l), m), n), o), t), u), v) eta w) letretan jasota daudenak, oso astuntzat jotzen ez badira; p), q), r), s) eta x) letretan jasotakoak, kalteen balioa 100.000 eurotik gorakoa bada; eta berrerortzea, baldin eta arau-hauste arin bat egiten bada, aurretik egin eta zehatu zen beste arau-hauste baten mota berekoa, hura jakinarazi ondoko bi urteko epean, eta zehatzeko ebazpena irmoa bada administrazio-bidean.

c) Arintzat joko dira p), q), r), s) eta x) letretan jasota daudenak, kalterik gertatu ez bada edo kalteen balioa 100.000 euro baino txikiagoa baldin bada.»

Hirurogeita bat. 77. artikulua 81. artikulua bihurtzen da, eta honela idatzita geratzen da:

«81. artikulua. *Zehapenen sailkapena.*

1. Aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteei zehapena jarriko zaie, honako isun hauen bitartez:

a) Arau-hauste arinen kasuan, 100 eurotik 3.000 eurora bitarteko isuna.

b) Arau-hauste astunen kasuan, 3.001 eurotik 200.000 eurora bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso astunen kasuan, 200.001 eurotik 2.000.000 eurora bitarteko isuna, eta gehieneko zenbatekoa handitzeko aukera izango dute autonomia-erkidegoek.

2. Zehapenak ezartzean behar bezalako proportzioari eutsiko zaio arau-haustea eragin duen ekintzaren larritasunaren eta aplikatutako zehapenaren artean, honako irizpide hauek kontuan hartuta: jokaera arau-haustea dakarren arriskuaren larritasuna eta haren eragina; eragindako kalteen zenbatekoa, halakorik balego;

haien garrantzia, lege honek babestutako pertsonen edo ondasunen segurtasunari dagokionez; erantzulearen egoera; arau-hauslearengan edo arau-hausleengan ikusitako intentzionalitate-maila; eta, hala badagokio, jokaera arau-hauslearen ondorioz bidegabe lortutako onura, bai eta eragindako kalte edo hondamenen itzulezintasuna ere.

3. Ez bada betetzen 511/2014 Erregelamenduan ezarritako arretaz jokatzeko betebeharra —Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 511/2014 zenbakidun EBko Erregelamendua Batasunean erabiltzaileek Nagoyako Protokoloa betetzeko neurrien ingurukoa da, eta Protokolo hori baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eta haiek erabiltzeak dakartzan onuretan parte-hartze bidezkoa eta ekitatezkoa izatearen gainekoa da—, bertan behera utzi ahal izango dira, berehala, baliabide genetiko hori erabiltzen duten jarduera espezifikoak —esate baterako, baliabide genetikoetan eta haiei lotutako jakintza tradizionaletan oinarritutako produktuak merkaturatzea—, edo konfiskatu egin ahal izango dira legez kanpo lortutako baliabide genetikoak.

4. Lege honetan tipifikatutako arau-hausteei zehapena jartzea Estatuko edo autonomia-erkidegoetako administrazio eskudunei dagokie, bakoitzari bere eskumenen esparruan.

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren bitartez, Estatuko Administrazio Orokorrari dagokio zehapenak jartzea, administrazioko arau-haustea bere eskumenen esparrukoa baldin bada.

5. Hertsapen-isunak jartzea erabaki dezake administrazio instrukturak, eta errepikatu egin ditzake isunak, agindutakoa betetzeko behar besteko denbora-tarteak emanda, baldin eta arau-hausleek ez badute kaltea konpondu edo ordaintzen, 79. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Hertsapen-isun horiek ezarri gero, betebeharra betetzeko zenbateko epea dagoen eta ezar daitekeen isuna zenbatekoa izan daitekeen adierazi beharko da errekerimenduan. Nolanahi ere, betebeharra betetzeko modukoa izan beharko du epeak. Hertsapen-isuna ezarri ostean ere jarraitu egiten bada isun hori jartzeko arrazoi izan den araua bete gabe, behar adina aldiz errepikatu ahal izango da hertsapen-isuna betebeharra bete arte, eta errekerimendu berrietan ezarritako epea ez da izango, inolaz ere, lehenengoan ezarritakoa baino txikiagoa. Zehapen modura ezar daitezkeen isunekiko independenteak eta bateragarriak dira hertsapen-isunak.

6. Estatuko Administrazio Orokorraren esparruan, gehienez jota 3.000 eurokoak izango dira hertsapen-isun horiek.

7. Gobernuak eguneratu egin ahal izango ditu 1. zenbakian ezarritako zehapenak, errege-dekretu baten bidez.»

Hirurogeita bi. 78. eta 79. artikulua 82. eta 83. artikulua bihurtzen dira, hurrenez hurren.

Hirurogeita hiru. Aldatu egiten da lehen xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Lehen xedapen gehigarria. *Estatuko Administrazio Orokorrak itsasoko gunea, habitat eta espezieen gaineko eskumenak baliatzea.*

2010eko abenduaren 29ko 41/2010 Legean xedatutakoa eta autonomia-erkidegoei eremu horretan dagozkien eskumenak alde batera utzi gabe, hurrengo paragrafoetan xedatutakoa bete beharko du Estatuak, itsasoko gunea, habitat eta espezieen gaineko eskumenak baliatzeko garaian:

a) Kanpoko uretako arrantza-baliabideak babestea, kontserbatzea eta birsortzea 2001eko martxoaren 26ko 3/2001 Legearen I. tituluko II. eta III. kapituluetan xedatutakoaren arabera arautuko da.

b) Naturagune babestuetako eta Natura 2000 Sareko gunea babestuetako kanpoko uretan arrantza-jarduerak egiteko mugak edo debekuak Gobernuak

ezarriko ditu ingurumen-araudian finkatutako irizpideei jarraikiz, 2001eko martxoaren 26ko 3/2001 Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Itsas ingurunean dauden naturagune babestuei eta Natura 2000 Sareko gune babestuei dagokienez, Gobernuak ezarriko ditu merkataritza-itsasketaren, interes orokorreko portuen eta itsas seinaleen arloetako muga edo debekuak, Estatuko Portuen eta Merkataritza Itsasketaren Legearen testu bategina onartzen duen 2011ko irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

d) Estatuko Administrazio Orokorrek itsas ingurunean, ekonomia-eremu eskusiboan eta plataforma kontinentalean dituen eginkizunak –defentsan, itsas arrantza eta hazkuntzan, merkataritza-itsasketan, interes orokorreko portuetan eta itsas seinaleetan, hondarrak ateratzen, Espainiako ondare arkeologikoa babesten, baliabideak ikertzen eta ustiatzen edo lege honetan arautu gabeko beste gai batzuetan–, eginkizun horiek esleituta dituzten sail edo erakundeek beteko dituzte, esleituta dituzten moduan, ezertan galarazi gabe legeria espezifikoa edo nazioarteko hitzarmenetan xedatutakoa, halakoak aplikatu beharrekoak badira.

e) Biodibertsitatea eta paisaia kontserbatzeko eta modu jasangarrian erabiltzeko politiken eta ikerketako programa nazionalen arteko koordinazioa sustatzea.»

Hirurogeita lau. Aldatu egiten da hirugarren xedapen gehigarria, eta honela idatzita geratzen da:

«Hirugarren xedapen gehigarria. *Nekazaritzarako eta elikadurarako arrantza-baliabideak eta baliabide fitogenetiko eta zoogenetikoak.*

71. artikuluan ezartzen dena salbuespen izanik, lege honen aplikazio-esparrutik kanpo geratuko dira honako hauek:

a) Nekazaritzarako eta elikadurarako baliabide fitogenetikoak; Haztegiko Hazi eta Landareen eta Baliabide Fitogenetikoaren 2006ko uztailaren 26ko 30/2006 Legearen bidez arautuko dira.

b) Estatuko Itsas Arrantzaren 2001eko martxoaren 26ko 3/2001 Legearen araututako arrantza-baliabideak.

c) Nekazaritzarako eta elikadurarako baliabide zoogenetikoak; araudi espezifikoaren bidez arautuko dira.»

Hirurogeita bost. Laugarren xedapen gehigarriaren bigarren eta hirugarren zenbakiak ezabatu dira.

Hirurogeita sei. Zortzigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela idatzita geratzen da:

«Zortzigarren xedapen gehigarria. *Laguntzen baldintzak.*

Funts nazionalekin soilik finantzatutako laguntza publikoek eta funts nazionaletatik autonomia-erkidegoetara egindako transferentziek, arau honetan ezartzen den xederen bat betetzeko baldin badira, bete egin beharko dituzte lege honetan ezartzen den informazioa emateko betebeharrak.»

Hirurogeita zazpi. Bederatzigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela idatzita geratzen da:

«Bederatzigarren xedapen gehigarria. *Hirigintza-tasen gaineko salbuespena interes orokorreko obraren kasuan.*

Estatuko Administrazio Orokorrek ez ditu ordaindu beharko hirigintza-legeriaren arabera eskatu beharrekoak diren tasak, baldin eta obrak, 4.3 artikuluan ezartzen denari jarraikiz, interes orokorreko obra izendatzen badira.»



Hirurogeita zortzi. Hamargarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela idatzita geratzen da:

«Hamargarren xedapen gehigarria. *Naturagune babestuak eta Natura 2000 Sareko lekuak kudeatzeko planen ingurumen-ebaluazioa.*

Naturagune babestuak edo Natura 2000 Sareko lekuak kudeatzeko planek soilik bete beharko dute ingurumen-ebaluazio estrategikoa, baldin eta legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa bete behar duten proiektuak baimentzeko etorkizuneko esparrua ezartzen badute, Ingurumen Ebaluazioari buruzko 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a artikuluan ezarritakoa betez.»

Hirurogeita bederatzi. Hamaikagarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela idatzita geratzen da:

«Hamaikagarren xedapen gehigarria. *Aireko espazioaren erabilera eta aireko zirkulazioa eta garraioa.*

1. Aireontziek naturagune babestuetan eta Natura 2000 Sareko gune babestuetan hegan egiteko mugak edo debekuak Gobernuak ezarriko ditu, Aireko Nabigazioaren gaineko 1960ko uztailaren 21eko 48/1960 Legearen 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Aurreko zenbakian aipatu diren mugak edo debekuak tramitatzean, nahitaez egin beharko du txostena Defentsa eta Sustapen Ministerioen Arteko Batzordeak.»

Hirurogeita hamar. Hamabigarren xedapen gehigarria eransten da, eta honela idatzita geratzen da:

«Hamabigarren xedapen gehigarria. *Defentsa Nazionalari, Defentsa Ministerioari edo indar armatuen erabilerari loturiko ondasunak.*

Natura-baliabideak antolatzeke planak egiteko prozeduretan, eta administrazio eskudunak kasu bakoitzean naturagune babestuetarako eta Natura 2000 Sareko gune babestuetarako erabakitzen duen kudeaketa-formula deklaratzeko eta zehazteko prozeduretan, txostena egin beharko du Defentsa Ministerioak, betiere prozedura horien eraginpean geratzen badira Defentsa Nazionalari atxikitako lursail, eraikin eta instalazioak —haien babes-eremuak ere barne direla—; Defentsa Ministerioaren txostena loteslea izango da Defentsa Nazionalari dagokionez, eta bi hilabeteko epean bideratu beharko da.»

Hirurogeita hamaika. Aldatu egiten da xedapen indargabetzailea, eta honela idatzita geratzen da:

«Xedapen indargabetzailea. *Arauk indargabetzea.*

1. Indargabeturik geratzen dira lege honetan xedatutakoaren aurkakoak diren xedapen orokorrak eta, bereziki, honako hauek: 4/1989 Legea, 1989ko martxoaren 27koa, Naturaguneak eta Basaflora eta Basafauna Kontserbatzekoa; 2006ko apirilaren 28ko 10/2006 Legearen lehen xedapen gehigarria —10/2006 Legearen bitartez, 2003ko azaroaren 21eko Mendien 43/2003 Legea aldatu zen—; eta 1995eko abenduaren 7ko 1997/1995 Errege Dekretuaren I., II., III., IV., V. eta VI. eranskinak —1997/1995 Errege Dekretua, Habitat naturalak eta basafauna nahiz basaflora kontserbatuz biodibertsitatea bermatzen laguntzeko neurriak ezartzen dituena—.

2. Era berean, apeu bidezko ehizari dagokionez, indargabetu egin dira honako artikulua hauek: 1970eko apirilaren 4ko Ehizaren 1/1970 Legearen 23.5.a), b) eta c); 31.15; eta 34.2 artikulua; eta Ehizaren Legea betearazteko Erregelamendua onartzen duen 1971ko martxoaren 25eko 506/1971 Dekretuaren 25.13.a), b) eta c); 33.15, 33.18, 33.19; 37; 48.1.15; 48.2.17; 48.2.31 eta 48.3.46 artikulua.

3. Lege honen 60.2 artikulua bitartez, indargabeturik geratzen da 2011ko otsailaren 4ko 139/2011 Errege Dekretuaren 10. artikulua (Babes Bereziko Araubidean dauden Basaespezieen Zerrenda eta Espezie Mehatxatuen Espainiako Katalogoa garatzeko Errege Dekretuaren 10. artikulua, alegia).

4. Lege honen 71. artikulua bitartez, indargabeturik geratzen da Itsas Ingurunea Babesteko 41/2010 Legearen lehen xedapen gehigarria.»

Hirurogeita hamabi. Aldatu egiten da azken xedapenetatik bigarrena, eta honela idatzita geratzen da:

«Azken xedapenetatik bigarrena. *Eskumen-tituluak.*

1. Espainiako Konstituzioaren 149.1.23 artikuluan xedatutakoaren arabera, lege hau ingurumena babesteari buruzko oinarritzko legea da, xedapen jakin batzuk izan ezik; xedapen horiek, Konstituzioaren artikulua horren babespean ez ezik, honako eskumen-titulu hauen babespean ematen dira: 53. artikulua, erregistroak antolatzeke eskumen eskusiboa Estatuari esleitzen dion 149.1.8 artikulua babespean ematen da; 4.3 artikulua eta 60.2 artikulua bigarren tartekia, interes orokorreko herri-lanen gaineko eskumen eskusiboa Estatuari esleitzen dion 149.1.24 artikulua babespean ematen da; 54. artikulua 2., 3. eta 4. zenbakiak eta 71. artikulua, kanpo-merkatari buruzko legeria eratzten dutenak, 149.1.10 artikulua babespean ematen dira; eta seigarren xedapen gehigarria, nazioarteko harremanen arloko eskumen eskusiboa eratzten duena, Konstituzioaren 149.1.3 artikulua babespean ematen da.

2. 76.2 artikulua eta lehen xedapen gehigarria ez dira oinarritzkoak; horrela, bada, Estatuko Administrazio Orokorrari, haren organismo publikoei eta Estatuko agentziei baino ez zaizkie aplikatuko.»

Hirurogeita hamahiru. Aldatu egiten da legearen VIII. eranskina, eta honela idatzita geratzen da:

## «VIII. ERANSKINA

### Espainiako lurraldearen geodibertsitatea

#### I. *Unitate geologiko adierazgarrienak*

1. Iberiar Mendiguneko Orogeno Variskarraren egitura eta formazio geologiko apartekoak.

2. Mendikate alpetarretako basamentuaren egitura eta formazio geologiko apartekoak, unitate aloktonoak eta estalki mesozenoikoa.

3. Kontinenteko eta itsasoko arro zenoikoaren egitura eta formazio geologiko apartekoak.

4. Sistema bolkanikoak.

5. Egungo eta iraganeko klimaren ekintzaren adierazgarri diren metakinak, lurzoru edafikoak eta modelatu apartekoa duten formak.

6. Ibaiek, aintzirek eta haizeak sortutako modelatu apartekoa duten metakinak eta formak.

7. Kostaldeko eta itsasertzeko metakinak eta modelatu-formak.

8. Sistema karstikoak karbonatoetan eta ebaporitetan.

#### II. *Mundu osoan esanguratsuak diren Espainiako testuinguru geologikoak.*

1. Iberiar Mendiguneko ibai-sarea, basoberak eta erliebe appalacetarrak.

2. Iberiar Penintsulako kostaldeak.

3. Sistema karstikoak Iberiar Penintsulako eta Balear Uharteetako karbonatoetan eta ebaporitetan.

4. Iberiar Mendiguneko Behe eta Erdi Paleozoikoko segida estratigrafikoak.
5. Eremu Kantabriarreko karboniferoa.
6. Pangearen «*riftinga*» eta mendikate Betikoko eta Iberiarreko segida mesozoikoak.
7. Iberiar Penintsulako Mesozoiko kontinentaleko fosilak eta iknofosilak.
8. Kretaziko-Paleogeno mugako sekzio estratigrafikoak.
9. Pirinioen hegoaldeko arro sinorogenikoak.
10. Espainiaren ekialdeko arro zenozoiko kontinentalak eta haiei lotutako ornodunen aztarnategiak.
11. Lurraldeaurre betikoko unitate olistostromikoak.
12. Gertaera ebaoritiko Messiniarrak (Mediterraneoko gazitasun-krisia).
13. Pliozeno eta Pleistozenoko ornodunen Espainiako aztarnategiak.
14. Iberiar Penintsulako bolkanismo neogenoa eta kuarternarioa.
15. Kanariar Uharteetako eraikuntza eta morfologia bolkanikoak.
16. Orogeno Variskar iberiarra.
17. Alborango Eremuko Miozenoko eremua.
18. Almadéneko eskualdeko merkurio-mineralizazioak.
19. Zerrenda Piritiko Iberiarra.
20. Euskal-kantabriar arroko Urgondarreko Pb-Zn eta Fe mineralizazioak.
21. Iberiar Penintsulako konplexu ofiolitikoak.»

**Xedapen gehigarri bakarra.** *Gastu publikoa.*

Lege honetan jasotako neurriekin, ezingo dira handitu ez zuzkidurak, ez ordainsariak eta ez bestelako langile-gastuak.

**Azken xedapenetatik lehena.** *Ingurumen Erantzukizunaren 2007ko urriaren 23ko 26/2007 Legea aldatzea.*

1. Ingurumen Erantzukizunaren 2007ko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 2.1 artikuluko b) letra honela idatzita geratzen da:

«b) Uretan eragindako kalteak, hau da, efektu kaltegarri nabarmenak sortzen dituzten kalte guztiak:

1.a Lurrazaleko zein lurpeko ur-masen egoera ekologiko, kimiko eta kuantitatiboan, eta ur-masa artifizialen eta asko eraldatutako ahalmen ekologikoan. Ondorio horietarako, uren inguruko legeek jasotako definizioei egingo zaie kasu.

Efektu kaltegarriak ez dira joko urei eragindako kaltetzat, baldin eta Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua onartzen duen 2007ko uztailaren 6ko 907/2007 Errege Dekretuaren 39. artikulua aplikatu behar bazaie.

2.a Itsas uren egoera ekologikoan, Itsas Ingurunea Babesteko 2010eko abenduaren 29ko 41/2010 Legeak emandako definizioaren arabera, aintzat harturik Uren Legearen testu bategina onartzekoa den 2001eko uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuan egon daitezkeela jasota itsas ingurunearen egoera ekologikoaren zenbait alderdi.»

2. Ingurumen Erantzukizunaren 2007ko urriaren 23ko 26/2007 Legearen 45.3. artikulua honela idatzita geratzen da:

«3. Agintaritzak eskudunak ebazpena eman eta jakinarazi beharko du, gehienez sei hilabeteko epean. Zientzia zein teknikari dagokionez konplexuak diren kasuetan, epe hori beste hiru hilabetez luzatu ahal izango du gehienez agintaritzak, eta luzapenaren berri eman beharko die interesdunei. Interesdunei administrazio-errekurtsoak edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoak aurkezteko aukera emateko ondorio bakarrarekin, aipatutako epe hori pasatutakoan, ezetsizat joko da eskaera,

edo ofizioz abiarazitako prozedura iraungi egingo da, 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.2 artikuluan ezarritako baldintzetan, agintaritza eskudunaren ebazteko nahitaezko betebeharra gorabehera.»

**Azken xedapenetatik bigarrena.** *Airearen kalitatearen eta atmosfera babestearen 2007ko azaroaren 15eko 34/2007 Legea aldatzea.*

Airearen kalitatearen eta atmosfera babestearen 2007ko azaroaren 15eko 34/2007 Legearen 13. artikuluko 2. zenbakiari hirugarren paragrafo bat gehitzen zaio; beraz, 13. artikuluan 2. zenbakia honela idatzita geratzen da:

«2. Ezertan galarazi gabe administrazioak herritarren jardueran esku hartzeko dituen gainerako bitartekoak —beste xedapen batzuen bidez eska daitezkeenak—, autonomia-erkidegoen administrazio-baimenaren prozedura bete beharko dute honako hauek, autonomia-erkidegoek erabakitako baldintzetan: lege honen IV. eranskinean agertzen den katalogoan A eta B taldeetan bildutako jardueraren bat garatzeko diren instalazioak eraikitzea, muntatzea, ustiatzea, lekualdatzea edo nabarmen aldatzea. A taldeko jarduerak emisioak kontrolatzeko betekizun zorrotzagoak bete beharko dituzte B taldekoek baino.

Baimen horiek aldi jakin baterako emango dira, eta, gehienez, zortzi urteko aldia izango da; aldi hori igarotakoan, segidako alditan berriro ahal izango dira.

Baimena ematea dagokion organo eskudunak prozedurari amaiera emango dion ebazpena igorriko du, gehienez ere bederatzita hilabeteko epean. Epe hori igaro eta ez bada berariazko ebazpenik jakinarazi, aurkeztutako eskaera atzera bota dela ulertuko da.»

**Azken xedapenetatik hirugarrena.** *Europar Batasuneko Zuzenbidea txertatzea.*

Lege honen bitartez honako arau hauek ekarri dira Espainiako ordenamendu juridikora: 92/43/EEE Zuzentaraua, 1992ko maiatzaren 21ekoa, habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzearen ingurukoa; 2009/147/EE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko azaroaren 30ekoa, Basahegaziak Kontserbatzearen ingurukoa; eta 511/2014 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko apirilaren 16koa, Batasunean erabiltzaileek Nagoyako Protokoloa betetzeko neurrien ingurukoa —Protokolo hori baliabide genetikoaren eskuragarritasunaren eta haiek erabiltzeak dakartzan onuretan parte-hartze bidezkoa eta ekitatezkoa izatearen gainekoa da—.

**Azken xedapenetatik laugarrena.** *Indarrean jartzea.*

Lege hau indarrean jarriko da *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hamabost egun igarota.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2015eko irailaren 21ean.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
MARIANO RAJOY BREY